

ARGIA

UDAL LIBURUTEGIA



Bilboko kultur espazio publikoekin, negozioa

24-29. orrialdeak



**Klima larrialdiak
jotako herri
ahaztua**

12 | ANGOLA



**"Itzulpengintza inoiz
baino eskurago eta
ikusezinago dago"**

14 | MARÍA RAIMÓNDEZ



**"Herri maputxea
terrorista dela esan du
Argentinako Gobernuak"**

30 | LAURA TAFFETANI

Sarean eduki guztiak irekita **zuri esker**

**Herritar guztiei informazioa
bermatzeko.** Inor bazterrean
utzi gabe. Dirua ez dadin
eskubideen gainetik egon.

Lagundu sare
libreari eusten:

argia.eus/eginargiakoa

 **ARGIA**



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 19 | XIMUN FUCHS
- 20 | CIRA CRESPO
- 21 | IÑIGO MARTINEZ
- 21 | CASTILLO SUÁREZ
- 22 | KIMETZ ARANA

Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRIKAIK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU


AZALEKO ILUSTRAZIOA: **XABIER SAGASTA LACALLE**

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


14 | IDAZLE ETA ITZULTZAILE GALEGO DEKOLONIALISTA

María Reimón elkarriketatu du Danele Sarriugartek. Ikuspegi feminista eta dekolonialistatik problematizatu du itzulpenaren gaia. Adimen Artifizialak itzulpenean duen eraginaz ere mintzatu dira. Guztiak badu lotura galegora herritarrek erakartzearekin.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Angolan lehorteak 2,3 milioi pertsona mehatxatzen ditu, baina nori axola zaio?

Nicolas Goñi

24 | KULTURA

Esku pribatua zerbitzu publikoan

Jones Gartzia

30 | INAZIOARTEA | LAURA TAFFETANI

“Errebeldia hazi egin da Argentinan, herri oso bat bultzaka ari da”

Eneko Imaz

34 | HISTORIA | RESAKO AZTARNATEGIA

Ebroko muga zaharraren lorratzetan

Josu Narbarte

44 | KULTURA | LIBURUTEGIA DENONTZAT

Umeak ez dira ongi etorriak Debako udal liburutegian

Mikel Garcia


ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Aier Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Manex Moreno, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Unai Lomana, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Lander Gonzalez, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jones Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



Aldizkari honek ekoedizioaren baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202506489


OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen sareko kide gara.



“Te han llamado barrio conflictivo”

Frankismo betean Euskal Herrian barrena hamaika auzo eraiki edo birmoldatu ziren kanpotik etorritako langileei bizitokia emateko. Orain bezala, lehen ere prekario etorritakoen sostengu nagusia urkoa izan zen. Sarri ia hutsetik eraiki zuten auzoa. Bertoko auzolanari, adiera berritua emanda, klase elkartasunez —sarri hori zer zen ere jakin gabe—. Eta urteen poderioz, migratzaileen leku horiek bilakatu ziren euskal herritar guztien eskubideen aldeko borroka gune nagusi. Horietako bat da Iruñeko Txantrea, 75 urte bete berri dituena. Bizi gaituen eskuin muturraren enegarren *revivalari* aurre egiteko, osagai interesgarriak erabili dituzte urteurrena ospatzeko: txikitasunetik, sormena, umorea eta errebeldia.

📍 Francok 1952an auzoa bisitatu zuen eguna parodiatu dute txantrearrek.

VILLAR LÓPEZ / EFE

AXIER LOPEZ



Bilbao Arenan milaka euskaltzale batzeko deia egin du Kontseiluak

 ENEKO IMAZ GALPARSORO

Agerraldia egin du Euskalgintza-ren Kontseiluak Bilbon, eta euskararen normalizazioak dituen erronkei aurre egiteko lehen urratsaren berri eman dute: ekitaldia egingo dute Bilbao Arenan, abenduaren 27an. Euskaltzale guztiei, baina, oro har, "justizia sozialean eta gizarte kohesioan aurre egin eta dibertsitatea bermatu nahi duten herritar denei" egutegian egun hori "ondo markatzeko" dei egin diete.

Azken hamarkadetan euskararen biziberritzean urrats ugari egin diren arren, susperraldi ziklo hori agortzen ari denaren zantzuak nabariak direla ohartarazi du Kontseiluak. Zenbait daturekin "kezkatuta" daudela aitortu dute: ezagutza erlatiboa apaltzen ari da Ipar Euskal Herrian, Nafarroako ikasle berrien erdiak baino gehiagok ez du euskararekin harremanik izango ikasketa ibilbidean, erabilera soziala jaisten ari da eremu euskaldunenetan eta oldarraldi judiziala iristen ari da auzitegietatik ere, "euskaldunon eskubideak, hizkuntza berdintasuna eta gizarte kohesioa kolpatuz".

Datu horiek "globalizazioaren egungo aldaera muturrekoaren" testuinguruan kokaturik, hizkuntza minorizatuen egoera zaildurik dela uste du Kontseiluak: "Globalizazioaren parte da mugikortasun-

naren biderkatzea, komunitate bizitzaren lausotzea, eta hizkuntza praktika berriak sortzea. Praktika berri horiek hizkuntza nagusien alde jartzen dute balantza, euskararen kasuan, bereziki gaztelera eta frantsesaren alde egiten badu ere, gero eta gehiago, baita ingelesaren alde ere". Bizitzaren digitalizazioa -hizkuntza hegemonikoetan bideratu ohi dena- eta osaera soziodemografikoaren aldaketak ere jarri dituzte erronken artean.

Kontseiluak azpimarratu du 2025 urtea "indartsu" hasi dutela euskalgintzako eragileek, eta urte amaierara arte ekimen ugari antolatuko dituztela: Euskal Herrian Euskaraz-ek apirilaren 6rako deitu duen manifestazio nazionala, maiatzaren egingo den Euskaraldia eta abenduan egingo den Durangoko Azokaren 60. edizioa nabarmendu dituzte.

Zentzu horretan, euskararen normalizazio eta biziberritzeak "behar duen arnas berri" horren bultzatzaile izateko baliatuko dute abenduaren 27ko ekimena, euskararen "pizkunde berriaren" lehen urratsa izateko asmoari segi. Milaka herritar batu nahi dituzte egun horretan: "Sinetsita gaude euskarak behar duen Pizkunde berria gure historia sozial garraikideko beste kinka larrietan bezala herritarren kideztza eta bultzadatik etorriko dela". ●

Bizkaigane proiektua, kaleratze arriskuan

 ERREDAKZIOA

Bizkaigane elkarteak elikadura burujabetzan oinarritutako proiektua du Errigoitin (Bizkaia), 1983tik. Instalazioak dauden lur eremutik aterarazi nahi du lur jabeak elkarte, eta proiektuak Errigoitiko lur horietan jarrai dezan elkarretaratzea deitu dute martxoaren 27rako.

EHNE sindikatuak argitara eman duen oharrean dio instalazioek lege eta administrazio eskakizun guztiak betetzen dituztela. Eraikuntza lur jabearen baimenarekin eta administrazioarekin egin zela dio sindikatuak. Jabe berriak, ordea, urteak igaro eta gero eraikuntza bere izenean jarri nahi izan zuen. Katastroak elkartearen aldeko ebazpena eman zuen, eta orain, lur jabeak salaketa jarri du, elkarte dagoen tokitik aterarazteko asmoz.

Sindikatuak kaleratzea gerarazteko eskatu du, eta alderdi guztiei eskatu die "irtenbide egoki bat" bilatzeko, Bizkaiganageren ekoizpen jarduera bermatzeko.

Proiektuaren oinarria esnetarako eta haragitarako txerriak, ardiak eta behiak dira, eta eraldatutako elikagaiak ekoizten dituzte. Jarduera Txapel Koop kooperatibak kudeatzen du, eta hamaika langile ditu. Ekoizpen guztia ekologikoa da. ●

MOTZEAN

Sunsundegui Altsasuko karrozeria enpresa hartzekodunen konkurtsoan sartu zenetik lau hilabetera, berau likidatu eta ixtea proposatu diote epaileari, inbertitzaile baten "eskaintza bideragarriak" egon ezean. 377 lagunek egiten dute lan Sunsundeguin.

Gipuzkoako Behe-Bidasoako haur eta gazteen psikiatriako kontsultaren itxierak haserrea piztu du bizilagunengan. Osasun Bidasoa plataforma herritarrak salatu du itxierak "are gehiago hondatuko" duela eskualdeko osasun publikoa.

Iruña-Veleia auzia "behin betiko" argitzea eskatu dute martxoaren 30ean, Gasteizen egindako manifestazioan. Iruña-Veleia argitu, ez suntsitu plataformak deituta, aztarnategian egindako "txikizioak" salatu dituzte eta Arabako Foru Aldundiaren ardura azpimarratu dute.

Europaren berrarmatzearen aurkako manifestua sinatu dute Espainiako Estatuko dozenaka erakunde eta pertsona ezagunek. "Ez dugu gerraren aurrean etsi nahi. Klima belikoak bulego erosotetan diseinatzen dira, baina ondorioak herriek jasaten dituzte".

MELOI SALTZAILEA

Zedarriak



JUNE FERNANDEZ

Bizitza erdigunean jartzeko abagunea ikusi genuen feministok zein ekologistok Covid-19 pandemia garaian. Ez ginen inozoak, bagenekien boteretsuak eta herritar asko gustura itzuliko zirela betiko normaltasunera. Bereziki, konfinamendu samurra pasa zutenak haien txaletetan edo luxuzko baserrietan.

“Kaka ongarri bihurtu” erreportajea publikatu nuen orduan ARGIAren Gakoak aldizkarian. Esperientzia komunitario inspiragarriren bat jaso nuen, baita etxeko langile eta zaintzaile egoiliarren muturreko esplotazio egoerak ere. Bai, dirudunen txaletetan edo luxuzko baserrietan lan egiten zuten horiek. Bada, bost urteren ondoren, mundua are kakaztuago dago.

Donald Trump eta Javier Milei buru dituen amesgaiztozko erreakzio belizistaren testuinguruan, jakin dugu Euskal Herriko enpresarien Zedarriak foro ekonomikoan “defentsaren industria” suspertzea proposatu dutela, Eusko Jaurlaritzako ordezkariaren oniritziarekin.

“Euskal Herria PostCovid-19” izeneko manifestua sinatu zuten unibertsitateko irakasle eta ikerlariak “Armagintza industria ez da bide(zko)a” manifestua zabaldu dute orain, gerrako industria indartzeak dituen inplikazio etiko, ingurumeneko, ekonomiko eta sozialak salatzeke, eta eredu ekonomiko bidezko eta jasangarriagoa aldarrikatzeko.

Bestetik, martxoaren 30a etxeko langileen nazioarteko eguna izan da, eta Emakume Migratu Feministak Zaintzaile Soziosanitarioak elkarteak komunikatua zabaldu du salatzeke egoiliar modalitateak “praktika arrazista, kolonial eta, ondorioz, faxistak” betikotzen dituela: “Jarraitzen dugu ikusezin, esplotatuak, baztertuak, deshumanizatuak, gizarte eta legealdi baten aldetik, nahiago dutenak bere pribilegioen erosotasunetik beste alde batera begiratu eta emakume migratu eta arrazializatuen gorputzak berenganatu zaintza sistema arduragabe bati eusteko”. Funtz putreek eta enplegu-enpresak berenganatua, gogoratu dutenez.

Zer lotura dauka *internen* egoerak armagintza-aren industriarekin? Dena, Palestinako genozidioak eta otsoaren ehizak bezala (ikusi pasa den asteko zutabea). Ekonomialari feministen hitzetan, kapital-bizitza gatazkaren adierazle garbiak dira. Ez da bakarrik batzuek zaintzen dutela beste batzuek suntsitu nahi duten mundua. Suntsiketa prozesu horiek kondanatzen dituzte emakume migratuak gure kaka garbitzera. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



LURRALDEA ETA ARKITEKTURA

Hirigintza militarra



ULA IRURETAGOIENA

Berriki zabaldu da Gazako lurralde-rako Egiptok egindako hirigintza-antolaketa plana. Marrazki batean jaso dira etorkizuneko kale, eraikin eta iruditeria, oraindik metraila eta lehergailuen usaina darion errealtate baten gain. Hirigintza proposamena, beste bonba jaurtiketa bat bailtzen erabilia. Itsasertzeko etxe banakako eraikinak, hedonismoko arkitektura baten ikur gisa hedatuta, gintonic bat terrazako igerilekutik itsasaldera begira. Genozidioaren lurren gain kapitalari egindako irudiei lizuna eta nazka darie.

Publikoa egin den Gazarako hirigintza-ko planak (agian boterea publizitatze-ko tresna gisa erabilia bakarrik) gerratea gauzatzeko erabili den militarizazio eske-ma errepikatzen du: militarki kontrolatua izateko diseinatuta dago. Gaza mugako 1,5 km-tako gunea “zor-eremu” bilakatu da hegazkin bidezko eraso kimikoei landa pozoitu ostean. Zoruari emankortasuna kendu eta helburu militarrentzat erabilgarri egin da. Plangintzak eraztun berde bat proposatzen du eremu horretan. Airezko suntsiketa egiteko hainbat igarobide sortu dira ekialdeko perimetron zehar, eta plangintzak bulebar kale nagusi bilakatu eta itsasaldearekin lotu ditu, Gaza zatikatu eta indarrez hartzeko erraztuko duten bideak sortuta. Gazak defentsarako berezko kale-ehundura korapilatsua zuen bitartean, hirigintza planak ehundura ortogonal sinple bat diseinatu du, erasokorragoa izan dadin.

Gerratearen ondorenean berreraikuntza prozesu bat dator ezinbestean, baina hondeatzaileak lurraldearen lehen sinbolo izatea presazko garbiketarako plan baten oinarria da. Eraikinak, sarraskiaren arrastoen gordailu eta gertakarien testigu isilak. Eraikinen hala moduzko suntsiketa, gerraosteko bigarren biolentzia-eragile.

Gaia adituak direnek diote gerraterik gabeko lurraldeetan militarki frogatutako plangintzak erabiltzen direla gizartearen kontrolerako, erabilitako moduak askoz nahasgarri eta sotilagoak badira ere. ●

ANALISIA



Save the Children, saldu bonbak (II)

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Historia errepikatzen dela idatzi zuen Marxek, “lehenik tragedia gisa, gero fartsa modura”. Armagintzaren eta militarismoaren inguruan errepikapen hutsa ez, espiralean goraka doan buklea ari gara bizitzen, fartsatik asko due-na, eta tragedian amaitzeko gero eta aukera gehiago.

Otsaileko izenburu bereko artikuluan salatu nuen Pilar Kaltzada aldi berean izatea Save the Children GKEko Espainiako presidente eta Zedarriak armagintzaren lobbyko kide; Jokin Aperribay Realaren presidente eta SAPA enpresako nagusi; Mikel Torres sailburua armagintzaren hooligan. Honatx aipatu espiralaren hiru froga, hilabete bakarrean:

ARGIaren irakurle Amelia Barquínnek Save The Childreneko bazkideen arreta zerbitzuko arduradunarekin postaz izaniko elkarrizketa helarazi dit. “Bateragarria iruditzen al zaizu armen aldeko lobby batekin lan egitea eta aldi berean hau bidaltzea?” galdetu zion, Gazako haurrentzako dirua eskatzen jasotako mezuari aipamena eginez. “Kaixo, Amelia, eskerrik asko zure kontsulta eta laguntzagatik. Ez dago zuzeneko loturarik Save the Children eta Zedarriak taldearen artean. Pilar Kaltzada Save the Children erakundearen patronatuko presidentea da. Patronatu hori pertsona independente ospetsuek osatzen dute, hainbat erakunde publiko zein pribatutan karguak dituztenak”.

Armagintzak herritar “askori” sortu ahal dien “ezinegon etikoagatik” galdetu zioten Mikel Jauregi Industria sailburuari *Faktoria* saioan martxoaren 11n: “Europarrak gure historian de-fen-tsa egiten dugu, eta ez e-ra-so-a. Defentsarako bada, ni lasai geratzen naiz”. Guau. Egungo estatuak (Espainia eta Frantzia kasu) sortzeko barne gerra kontaezinak; mundua kolonizatzeke mendetako sarraskiak; bi mundu gerrak; 1936koa; Errusiaren Ukrainako inbasioa (Errusia Europa baita): defentsa hutsa.

Otsailaren 23an *Sapa: puntako euskal teknologia AEBko armadan* erreportajea argitaratu zuen *La Vanguardiak*: “Euskal familia-enpresa bat munduko armada indartsuenaren erreferentziazko aliatuetako bat bihurtu da: AEBkoa”. SAPAren zuzendariak enpresaren helburua zehaztu zuten: “NATOren erreferentziazko enpresa izatea mugikortasunaren alorrean”. Taldeak AEBn duen lantegiak pisua irabaziko omen du, izan ere, produkzioa bertan eginda muga-zerge “ez liokete eragingo euskal taldeari”. AEB, armen erabilera eta salmenta *defentsiboan* eredueta eredu, galdetu bestela Gazako haurrei.

Gerra normalizatzeko gerran jarraitzen dute. Horregatik proposatu du EBk herritarrok etxean produktuen kit bat prest izatea “gutxienez 72 orduz iraun ahal izateko kanpoko laguntzarik gabe”, lankidetzaz zibil-militarra, edo hezkuntza zentroetan formazioa.

Ez dezagun normaldu. Hau erantzun zion Ameliak GKEko arduradunari: “Egia-tan? Zedarriak armagintzaren aldeko lobbyarekin lerrokatzea bateragarria da Save the Children gobernatzearekin? Uste dut Zedarriak koherenteagoa dela *kill the children*-ekin Save the Childrenekin baino”. Ez du erantzunik jaso bueltan. ●

55

kolektibotik gora batu dira Bilboko Etxarri Gaztetxearen desalojoa bertan behera uzteko aldarrikapenera. Bilboko Udalak eta Amenabar enpresak proiektu urbanistiko baten pean itxi nahi dute 10 urtez auzoko bizitza sozialaren erdigunea izan den topalekua.

%2,2

igo da energia eskaria 2024an, aurreko urtearekin alderatuta. Arrazoi nagusiak: beroari aurre egiteko argindar gehiago erabili beharra, industriaren kontsumoa igotzea eta auto elektrikoen eta datu-zentroen hedapena.

33,3

milioi eurokoa da Donostiako Metroaren igarobideko lanen gainkostua, Eusko Jaurlaritzak adierazi duenez. 2024. urte bukaera bitarte, obrak 214,8 milioi euroko kostua izan du.

“Azken urteotako klimaren inguruko akordiorik etsigarriena izan da Bakuko goi-bilerakoa”

LOREA FLORES

Greenpeace-ren Hego Euskal Herriko koordinatzailea.

ERRIA (2025-03-27)

“OLDARRALDIAREN AURREAN, HAINBAT ADMINISTRAZIOZ, ADIBIDEZ, KOLDARRALDIA DATOR”

INTZA GURRUTXAGA LOIDI

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ-eko kidea.

ARGIA.EUS (2025-03-28)

“Lan zama arintzeko neurriak eta soldataren ingurukoa dira negoziazioko puntu gatazkatuak”

HAIZEA ARBIDE

STEILAS sindikatuko bozeramailea, EAEko hezkuntza publikoko irakasleen akordioa lortzeko sindikatuak Eusko Jaurlaritzarekin duten negoziazioez.

ARGIA.EUS (2025-03-26)

Burokraziaz



DIANA FRANCO

Wikipedian bilatu dut hitza, eta honela ulertu dut irakurritakoa: errealitatea arrazionalizatzeko metodologia da burokrazia, errealitatea ulergarriago egingo duten kontzeptuetara murrizteko bidean. Errealitatea bera ulertzeko eta kontrolatzeko helburua du, beraz.

Munduko aberatzen arduretariko bat izan da gobernuek burokraziaren bitartez eragiten duten aberastasunaren fiskalizazioa murriztea, "Big brother" delakoaren esku-hartzea murriztea. Baina "Big brother", azken hamarkadetan teknologia enpresa pribatu erraldoi askoren estrategiaren baitan dagoen jokabidea da eta helburua ez da aberastasuna banatzea, pobreak zapalduta mantentzea baizik.

Pobreentzako burokrazia euren errealtatea etengabe azaltzeko lana da, euren bizimodua aurrera ateratzeko bidean.

40 urte baino gehiago badituzu eta kudeaketa lanetan izan bazara, burokrazia lanetan, beharbada COBOL edota AS400 sistemak erabili dituzu. Pantaila beltza, hizki berdeak... Matrix estetikadunak. Horiek dira baita ere AEBko Segurtasun Sozialak erabiltzen dituenak. Suposatzen dut sistema horiek ez dutela uzten kudeaketara eta datu analisietara loturiko zenbait automatizazio prozesu berri egiten, eta beharbada horregatik Segurtasun Sozialak dituen sistemen COBOL oinarria berregin nahi du Elon Musk-ek zuzentzen duen DOGE departamentuak. Department Of Government Efficiency (Gobernuaren Efizientzia Departamentua) da DOGE, zeinak dollarraren zeinua duen logotzat.

AEBko herritar asko arduratuta daude, Elon Musk enpresariak beraien datu pribatuetan esku hartzeak haien bizitzetan izan dezakeen eraginagatik. Pobreen gaineko zelataritza sistemak modernizatzea helburu, DOGE herritarren baimenarekin egin ahal izateko mesfidantza zabaltzen hasi da: batzuk merezi ez dituzten laguntzak jasotzen dituztela, iruzurra egiten dutela... Ziur aberatsak espektakulua gus-tura ikusten ari direla. ●

Eskuindar nahiz progre, 10 urtez mozalarekin

AXIER LOPEZ

Duela hamar urteko martxoaren 31an Espainiako Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten denok Mozal Legea gisa ezagutzen dugun araudia. Espainiako Estatuan ez ezik, nazioartean parekorik gabeko aurkakotasuna eragin zuen lege makurra. Hamarkada pasa da eta jaio zenean bezain bizirik dago, bera indargabetu nahi zutenak orain gobernuan izanik ere. "Mozal Legea eta Zigor Kodearen erreforma PPren arrabolak onartu ditu. Gobernatzen dugunean indargabetuko ditugu", esan zuen 2015eko martxoan orduko oposizio-buru Pedro Sánchezek. "Ezkerreko gobernu" horrek zazpi urte daramatza agintean, baina legeak bere horretan jarraitzen du, herritarrei isunetan kendutako diru kopuruak 1.200 milioi euroko langa gaindituta.

2020ko pandemian ezarri zuten salbuespen egoeran masiboki baliatu zuten, 220.000 isun baino gehiago jartzeko. 2016tik 2023ra bitartean –horixe baita zifra ofizialak dauden azken urtea–, 1.250 milioi euro kobratu zituen estatuko zigorretan. Adierazgarria da isunen kopuruak ez duela gorabehera handirik izan, PPren zein PSOEren gobernuetan.

Mozal Legea ofizialki Herritarren Babeserako Legea bada ere, "segurtasuna" deitzen duten horrekiko zirikurik ez duten ekintzak zigortzen ditu. Adibidez, kalean legez kanpoko drogatzat jotako substantziak al-

dean eramatea. Horregatik, Mozal Legearen izenean jarritako isunen bi herenak izan dira "kalean drogak kontsumitzeagatik" (1.242.960 isun, 803.000.000€). Legearen puntu polemikoak ere agertzen dira rankingean: agintea desobeditu ala erresistentzia egiteagatik: 356.544 isun eta 246 milioi, agintaritzaren aurkako errespetu falta eta erresistitzeagatik: 168.043 isun, eta espazio publikoetan desordenak eragin edo bide publikoa oztopatzeagatik 43.898 isun jarri dituzte zortzi urte horietan.

Lau aldiz saiatu dira arauaren puntu kaltegarrienak birmoldatzen. Iazko urrian, PSOEek eta Sumarrek legea erreformatzeko akordioa lortu zuten EH Bildurekin. Testu horrek hobetsi zituen gomazko piloten ordeztu "hain kaltegarria ez den materiala" erabiltzea eta "poliziak desobeditzea" arauhauste arina izatea, besteak beste. EAJk zuzenketak aurkeztu ditu "Poli-ziaren aurkako jarrera" horiek arauhauste larritzat mantentzeko. Hamar urteotan, Mozal Legea indargabetearen aldeko testuak sinatu dituzte jeltzaleek Euskal Herriko hainbat erakundetan, baina... kontu hauetan itxurakeria ez da Moncloako maizterrena bakarrik.

Edonola ere, eskubide zibil eta politikoen aldeko talde gehientsuen us-tetan erreforma hori ez da nahikoa pertsona guztien eskubideak eta askatasunak osorik bermatzeko. ●



Gasteiz Anitza sortu dute, auzoetako arazoak integrazioaren bidez konpontzeko

UNAI LOMANA URIBEZUBIA

Hainbat kolektibo daude Gasteiz Anitzaren atzean. Egoera larrien aurrean "soilik polizia-aren esku-hartze handiagoa" eskatzen duen eta "eskubideen urraketari entzungor" egiten dion ereduaren aurrean, beste praktika eredu bat egiteko saiakera dela adierazi dute. Abiapuntua "elkarbizitzan" dutela eta "auzokideen arteko elkartasuna" horretarako "tresna" dutela jakinarazi dute. Santiago Etorbideko kasua aipatu eta "baliabide falta" salatu dute.

Ekimenak hala definitzen du bere burua: "Harreraren sareak, mugimendu feministako kideak, auzo elkarteak, zaintza sareak, etxebizitzaren problematika lantzen dugun eragileak, politika migratzaileak salatzen ditugunak, antifaxistak, antiarrazistak, errolda eskubidea pertsona guztientzat aldarrikatzen ditugunak, gure komunitateak eta auzoak maite eta bizi ditugunak gara". Auzoetako arazoak perspektiba integratzaile batetik lantzeko eta indarrean dagoen ereduari irtenbide bat emateko sortutako ekimena dela adierazi dute.

"Auzokideok ondoan ditugun auzokideengatik kezkatzen gara, kriminalizatu gabe eta ditugun elkarbizitza beharrei eta arazoei helduz"

"Beldurraren, estereotipo okerren eta segurtasun ezaren aitzakipean" azken hilabeteetan gazteen kontrako diskurtso arrazistak biderkatu direla salatu dute; eta ultraeskuina eta zenbait medio horren erantzule gisa identifikatu dituzte. Horren aurrean, "auzokideen arteko elkartasuna izan da hartutako tresna", kideen esanetan. Halaber, adierazi dute auzoetan ematen diren "arazo multzo anizkoitzei" konponbidea emateko ar-



GASTEIZ ANITZA

dura dutela, eta hori abian ipiniko dute "bizipen komunitarioen eta antolakuntza forma" ezberdinen bidez.

"Arazoak" konpontzeko auzokideen inplikazioa bilatzen dutela diote: "Auzokideok ondoan ditugun auzokideengatik kezkatzen gara, kriminalizatu gabe eta ditugun elkarbizitza beharrei eta arazoei helduz".

SANTIAGO ETORBIDOKO KASUA

Santiago Etorbidean izandako gertakarak hizpide izan dituzte. Auzotarren arteko elkarriketak eta hartu-emanak "arazoaren irtenbide" izan zitezkeela pentsatu zuten, eta horri ekin zioten. Santiago Etorbideko Judimendiko Etxebizitza blokeko behe lokaletan "auzotar berriak" sartu ziren bizitzera, eta horrek "ezinegona" sortu zuen zenbait bizilagunen artean. Sareak beraz, bizilagun guztien beharrak entzun eta horiek asetzera izan zuen helburu. Azkenean Sareak "gatazkari" irtenbidea ematea lortu zuen, "izaera komunitarioz jardunez eta bizilagunen beharrei erantzunez"; lokaletako auzotarrei argi mozketak egiten zizkieten bitartean.

Horrela definitu du sareak Santiago Etorbidean aurrera eramandako prozesua: "Auzokideen arteko antolaketa eta elkartasunari esker kudeaketa desberdin eta arrakastatsu baten bidea ireki da. Bide hau elkarrekin urratu dugu, era komunitarioan. Finean, sareak jostea eta elkarren arteko elkarriketak hainbat arazori irtenbidea emateko baliagarria izan da. Baina batez ere, elkar eza-gutzeko eta besteen arazoei enpatia izateko aukera paregabea eman digu".

SARE ZABAL ETA ERAGINKORRA

Zerbitzu publikoen "sare zabal eta eraginkor" baten beharra aldarrikatzen amaitu dute prentsasurrekoa. Halaber, Gasteizko erakundeei eta gizarte eragileei hurrengo eskaera luzatu diete: "Konpromisoetatik harago, gatazken kudeaketa positiboarekin, gizarte kohe-sioarekin, diskriminazio, kalteberatasun, segregazio eta gizarte bazterketako egoeren prebentzioarekin, kulturartekotasunarekin eta bizi eta elkarrekin bizi nahi dugun hiriaren sorreran ardurak har ditzagun, herritar guztien parte-hartzea sustatuz eta bermatuz". ●

ANGOLAN LEHORTEAK 2,3 MILIOI PERTSONA MEHATXATZEN DITU, BAINA NORI AXOLA ZAIO?

Munduan gutien aipaturiko krisi humanitarioa da Angola hego-mendebaldean 2019az geroztik irauten duena. Klima aldaketak indarturiko lehorte luze baten ondorioz milioika pertsona janari eskasean edo desagokitasunean bizi dira eta ura bilatzeko ahalegin handiak egin beharrean dabilta egunero.

Gainera, txarrera doan testuinguru sozioekonomikoari ere aurre egin behar diote. Guzti hori hedabide handien interesetik eta arretatik urrun.

 NICOLAS GOÑI

Urrun diren bertze herrialde txi-roak bezala, gure latitudeetako hedabide handietan oso guti aipatu ohi da Angola. Euskal Herrian, herrialde hura ezagutzen duten gehienak atun arrantzaleak dira, baina han gaindi ibiltzean Benguela korronteko ur aberatsak dituzte xede. Itsasoan Benguela korrontea sortzen duen haizeak lurtean klima lehorra sortzen du Angola hego-mendebaldean. Cunene, Huila, eta Namibe probintzietan euriteen urtaroa laburra da, eta adi egon behar dute bertako laborariek, ereintza une egokian egiteko.

Baina 2019tik gaur egun arte, hiru probintzi horietan asko ahuldu da urtaro hezea, bertan ezohiko lehorteak sorturik. Salbuespen bakarra 2023ko abenduko eurite oparoa izan zen, baina euriak berandu hasi ziren, horren ondorioz uzta garaian etekina ez zen nahiko izan. Gaur egun, bertako 2,3 milioi pertsonak pairatzen dituzte lehortearen ondorioak. Estimaten da gutienez etxeen %20an otordu kopuru normala ezin dela ziurtatu, ez bada etxeko jabetzak likidatuta epe laburrerako janaria erosita. Uzta garaietatik aparte, hazkurri desagokitasunaren –edo elikapen eskasaren– maila altua da. Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsaren arabera, 2,3 milioi pertsona horetarik 500.000 borts urtez peko haurrak dira.

LOKATZAREN BILA PUTZUAK AITZURTU

Cunene probintzian 2019an jadanik egoera gogorra zen. Ondjiva hiriko urtegia laster hustu zen, eurite urtaro eskasarengatik –edo zehazkiago, ura baze goen baina lurzorua mailaren azpian, geruza freatikoa–. Bertze baliabiderik izan ezean, bertako hainbat familia hasi ziren lokatzean putzuak zulatzen, gehienak hiru metroko sakonera arte, batzuk dozena bat metrokoak, bertan zegoen uraz baliatzeko. Ura baino, lokatz gazia dute aurkitzen, eta putzuen aitzurtze eta mantentze lanak emakumeen eta haurren esku dira. Emakumeek, gainera, egurra saltzen distantzia luzetan ibili behar dute, janaria erosteko dirua lortzeko. Gizon helduak urtaro lehorrean ez daude etxean: abereekin transhumantzia egin ohi dute eremu berdeagotara –eta urtez urte etxetik gero eta urrunago joan behar izaten dute–. Putzuetatik ura lortzeak egunean lau eta zazpi ordu arteko lan nekea eskatzen du. Batzutan buztin hezeko putzu horien paretak erortzen dira eta zulatzea berriz abiatu behar da. Erortzen ez badira ere, lokatz buztintsua etengabe ari da isurtzen eta egunero putzu zolatik atera behar da, azkenean ura aurkitu arte. Baina egun guziak ez dira onak, eta batzutan zazpi ordu igarota ere, hamabi pertsonako familia batentzako 20 litro

eskas lortzen dituzte. Eskolara joaten diren hurrek ez dute indarrik klaseak jarraitzeko, putzuko lanen nekaduraz eta janari eskasaz gain, askok gauez etxeko abereei edatera eramaten dietelako, lau ordu iraun dezakeen ibilbide bat egin da. Txerriak zituzten hainbat familian, gehienak hil dituzte, epe laburrean zerbait jateko –baina epe ertaineko baliabideak kolokan ezarrita–.

Angolako lehorteak eta gosetea munduko hedabideetan gutien aipaturiko krisi humanitarioa izan da hiru urtez jarraian, 2022tik 2024ra. CARE International GKEak azpimarratzen duenez, 2024ko urtariletik irailera, 2.000 artikulua baino gutiago argitaratu ziren munduan Angolako egoerari buruz –denbora berean 300.000 artikulua inguru atera zirelarik *Barbie* filmari buruz–. Lehorteak pixkanaka zabaltzen den gaitza da, maiz bapateko gertakaririk gabe. Ur eta janari eskasak edota nekadurak bizitzak pixkanaka hondatzen dituzte. Gertakari eskasa ote da hedabide handiek halako egoerengako interes guti izatearen zergatia?

EGITURAZKO ARAZOEKIKO NAHASPILA

Klima aldaketak sorturiko arazoak gogorrak dira egiturazko ahultasunak pairatzen dituzten eskualdeetan, eta Angolan hala gertatzen da. Lehorteak

LAGUNTZA HUMANITARIOA

AEBek USAID laguntza humanitariorako agentzia itxi izanaren ondorioz, laborantzan ureztatze sistemak hobetzeko asmoa zuen proiektu bat dirugabeturik gelditu da Angola hego-mendebaldean.



COSPE ELKARTEA

baino lehen, egoera sozioekonomikoa prekarizatzuz zihoan Hufla eta Cunene probintzietan. Alhapide komunal gero eta gehiago hazle industrialek bereganatu dituzte 2002az geroztik, gobernuaren oniritziarekin. Adibidez, Gambos-Chiange udalerrian, alhapideen %67 eskuratu dute abeltzain industrialek. 2019an Amnesty Internationalek argi utzi zuen lur emankorrenen lapurtzeek abeltzain txikiak ekonomikoki eta sozialki ahultzen dituztela, janaria ekoizteko eta lehortei aurre egiteko gaitasunak murriztuta. Panorama horretan zabaldu dira lehortearen eraginak.

Horrez gain, azken hilabeteotan kole-
ra zabalitzen hasi da berriz Angolan, eta kolpaturiko probintzietarik bat Hufla da. Ur edangarri eskasak gaitz horren zabal-

pena errazten du, eta janari eskasak naturiko gorputzetan are latzagoak dira ondorioak. Egoera ekonomikoak ere ez du laguntzen, monetaren debaluazioak inportaturiko janariaren prezioa emendatu baitu. Nazioarteko Diru Funtsak Angolako Gobernuari eskatu berri dio gasoilarentzako dirulaguntza publikoak etetea, estatuaren finantzak hobetzeko gisan. Alta, badira garai hobeak finantza publikoen doiketarako egiteko...

Azkenik, kolpe latza eman dio Angolari AEBek USAID laguntza humanitarioak eten izanak. Dirugabetu den ekimenetako batek, hain zuzen, laborantzarako ureztatze sistemak hobetzeko asmoa zuen. Badira garai hau baino garai hobeak halako egitasmoetan eragiteko, are gehiago eteteko, baina AEBetako buruzagitzak

erakutsi duenez, ondorioez axola gutxi.

ARGIaren 2894 zenbakiko *Betirako urpetutako lurrez ordaintzen dute klima aldaketa Hego Sudanen* erreportajea aipatzen genuen bezala, Hego Sudanen 2019tik soberan dute euria, hain zuzen, garai beretik Angola hego-mendebaldeari eskas zaiona. Bi kasuetan erruduna ezaguna da: klima aldaketa, eta horrek dakartzkien euri zikloen desoreka. Peter Gleick ur zikloaren adituak dioenez, oraingoz klima aldaketak sorturiko hondamendien %90 inguru ur eskasari edota uholdeei lotua zaie. *Angola oi, qu'povo sabe?* ("Angola, oi zer daki herriak?") abesten zuen Cesaria Evorak. Munduan gutien aipaturiko krisi humanitarioa pairatzen duen herrialdeaz pixka bat jakinarazi nahi genizuen bederen. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



María Reimóndez

NEUTRALITASUNAREN IFRENTZUA



NEUTROTZAT AURKEZTEN DENA, EGIAZ, IDEOLOGIA NAGUSIAREN KONPLIZEA DA



Gozamen aparta bezain deskribatzeko zaila dakar, norbaiten hitzak irakurri edo entzun ostean, zera pentsatzeak: “Horixe zen neu aurreko hartan azaltzen saiatu nintzena!”. Idazlea eta itzultzailea da María Reimóndez, eta galegoz aritzen da, hizkuntza ez-hegemoniko batean. *Match* egiteko aukera handiak zeuden, eta bete ziren. Hona hemen Consonni argitaletxearen bulegoaren epelean aipatu genituenak.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Nola iritsi zinen itzulpengintzara?

Hizkuntzak eta idazketa interesatzen zitzaizkidalako. Ez neukan halako ideia zehatzik buruan. Nire familiak ez du ikasketarik maila horretan, ni naiz unibertsitatera iritsi den lehen belaunaldia, eta, filologia eta itzulpena zer izan zitezkeen alderatuz, gehiago erakartzen ninduen itzulpenak: horrela, abstraktuan. Baina zorte handia izan genuen, irakasleek ikuspegi berritzaileak zituztelako hainbat konturen inguruan.

Nola oroitzen duzu ikasketen garaia?

Vigoko Unibertsitateko itzulpen-ikasketen bigarren promoziokoa naiz: hasi nintzenean, ikasketak eraikitze-bidean zeuden oraindik. Horrek bazituen de-

sabantaila batzuk: hainbat greba egin behar izan genituen, ez geneukalako irakasle galego-hiztunik (ez zituztelako bilatzen), baina, beste alde batetik, irakasleak gazteak ziren, lan-mundutik zetozen, filologietatik, eta bolada eferbeszentea izan zen hainbat zentzutan.

Bestelako ikuspegietan sartu aurretik, Mendebaldeko itzulpen-teoria tradizionalai buruz galdetu nahi nizuke. Halakoetan, itzultzaileon (ustezko) neutraltasuna, gardentasuna eta ikusezintasuna baloratzen dira. Zein da ikuspegi horien arazoa?

Beti gertatzen den moduan, une historiko berean gauza batzuk modu sinkro-

nikoan eta elkarren ondoan bizi dira, nahiz eta bestelako elkarbizitza bat izan behar luketen. Hau da: zenbait ikuspegi atzean utziak behar genituzke jada. Zientzian ere, neutraltasunaren eta objektibotasunaren ikuspegi hori, bada mende bat ezeztatu denetik, eta erakutsi da neutrotzat eta gardentzat aurkezten dena, egiaz, ideologia nagusiaren eta bostere-egituren konplizea dela. Oso labur esanda, horregatik dira hain problematikoak Mendebaldeko itzulpen-teoria tradizionalak esaten diegunak.

Teoriak dira, baina efektu materialak dituzte.

Bai, era askotakoak. Pare bat aipatuko ditut: batetik, emakumeak baztertzan



María Reimóndez

LUGO, GALIZIA, 1975



Idazketan, poesia, narratiba, saioa eta haur-gazte literatura landu ditu oparo, eta hainbat sari jaso. Itzultzaile gisa, hamaika lan galegora ekar-teaz eta interprete gisa jarduteaz gainera, doktore-tesia egin zuen, Galiziako testuinguruan egin diren itzulpen feminista eta postkolonialak aztertuz. Kolektiboki ere jarduten da, ugari: AGPETI itzultzaile eta interpreteen elkartearen sortzaileetako bat izan zen, eta A Seg a eta Implicadas no Desenvolvimento kolekti-boetan parte hartzen du.

dira prestigiozko itzulpenetik, hau da, literatur itzulpenetik; bestetik, esku-hartzeak egiten dira askotariko tes-tuetan –ez soilik literaturan–, eta sub-jektu disidenteei edo postkolonialei bortizkeriak jasanarazten, jatorrizko testuetan agertzen ez zirenak.

Zu zeu beste teoria batzuetan oinarritzen zara bai itzultzeko bai idazteko. Hitz egingo zeniguke pixka bat itzulpen-teoria feminista eta dekolonialen ekarpenaz?

Bi espazio teoriko handi horien bar-ruan, badira ildo batzuk: besteak beste, eta esan bezala, aztertu izan da zer-nolako presentzia duten emaku-meek itzulpengintzan oro har, eta zer zeregin izan duten itzulpengintzak eta interpretazioak tresna kolonial gisa. Bestalde, hizkuntzen fluxuak azter-tzen dira, bai eta zer eragin duten ere. Esate baterako, emantzat jotzen dugu ingelesa dela munduko *lingua franca*, baina begiratzen baduzu zen-bateko diru-sarrerak sortzen dituen ingelesaren irakaskuntzak herrialde anglofonoetatik kanpo, hainbat milioi-tako negozioa da. Eta horiek ere fluxu kolonialak dira. Gero, ez dut honetan sakonduko, baina datuen kolonizazioa edo erauzketa, hori guztia estu lotuta dago itzulpenarekin.

Bestalde, interpretazioaren arloan ere oso agerikoa da hau dena. Komu-nikazio-prozesuan zeure gorputzare-kin parte hartzen duzunean, horrek ondorio asko ditu: zer-nolako eragina duen azentuak, ahotsak... Interpre-tzioaren teoriak itzulpen-teoriak baino berriagoak izan arren, halako ikuspe-giak ezartzeko espazio guztiz ageri-koak iruditzen zaizkit. Konputazioan eta ez dakit zertan ibiltzen diren, baina, berez, interpretazioan seku-lako lana egin liteke hainbat auzi be-rrikusten: genero-indarkeria, laneko jazarpena, emakumeak edo subjektu ez-hegemonikoak diren interpreteen gutxiespena...

Kanpotik ikusita, irudipena dut Galizian txertatu samar daudela itzulpenaren teoria berritzaileagoak, ikasketetan behintzat.

Badira hogeitaka urte unibertsitatean irakasle ibili nintzenetik, eta bolada labur-laburra izan zen, baina harre-mana daukat haiekin oraindik, AGPE-TIren sortzaileetako bat izan bainin-

tzen, eta etengabeko elkarerreraginean aritzen gara beste kide batzuekin eta ikertzaileekin. Ez dugu uzten ekar-pen horiek ahaztu daitezen, eta bada-go hor jende-multzo bat hori lantzen diharduena gaur egun ere: eskoletan aipatzen dute, etab. Beraz, oinarri bat da, itzulpen-teoriari buruz dauka-zun ezagutzaren parte bat. Eutsi egin behar zaio, noski; ez da ezerezetik sor-tzen. Eta esango nuke argitaletxeetan ere positibotzat jotzen dela.

Zuk hala bizi izan duzu?

Neure kasuan behinik behin, preseski itzultzaile feminista naizelako jotzen dute nigana zenbait argitaletzek. Haur eta gazte literaturaren adibidea aipa-tuko dizut. Batzuetan, album ilustratu baten eskubideak erosten dituzte marrazkiak asko gustatzen zaizkielako, baina agian testua ez hainbeste, edo problematikoa iruditzen zaie. Duela gutxi, adibidez, lanbideen liburu bat itzuli nuen, dena femeninoan. Hasie-ran bazeuden halako kutxa huts bat-zuk, eta zera azaldu nuen: “persona” eta “lanbidea”, galegoz, femeninoak dira biak, orduan dena femeninoan agertuko da. Zein zen beste aukeren arazoa? Ba liburu ilustratu bat zenez, ez nuela generoa itxuraren arabera esleitu nahi. Zer, ile luzea badu neska da, eta bestela ez? Okerragoa irudi-tzen zitzaidan. Mekanikaria, adibidez, femeninoan izendatzen da, bibotea izan arren. Aldi berean gauza asko iraultzeko bidea ematen zidan.

Adimen artifiziala fuerte sartu da itzulpenaren arloan. Nola ikusten duzu?

Egoera paradoxikoa da oso. Alde ba-tetik, itzulpena inoiz baino ikusga-rriagoa da. Jendeak badaki badagoela gauza bat itzulpena deitzen dena, eta berdin du zure egunerokoan hizkun-tza bakarra erabiltzen baduzu ere, mundu guztiari sortu diote halako premia bat, edonork edozer itzul de-zakeela inongo ahaleginik egin gabe. Orduan, esan bezala, itzulpena inoiz baino ikusgarriagoa da, inoiz baino es-kurago dago, baina egiaz, inoiz baino ikusezinago da: izan ere, prozesua ez da ikusten. Gauza bat eman eta beste bat jasotzen duzu, tartean zer gertatu den jakin gabe. Jendea ez da ohartzen prozesu bat dagoenik, ezta prozesu hori nondik abiatzen den ere. Hori ez da komunikazioa.



Horren harira, kasu paradigmatico bat aipatu nahi nuke, ingelesarekin ere antzekoa gertatzen baita. Zer gertatu da Zelenski eta Trumpen artean? Hizkuntza berean ari zirela uste zuten, baina ez. Aldiz, nor bere hizkuntzan aritu izan balira, eta tartean interprete profesional bat egon balitz, egoera ez litzateke hainbeste berotu izango. Trump handiputza da, hori argi daukagu denok, baina zu bi-tartekaritza linguistikoan ari zarenean, badakizu, adibidez enpresa-gizon espainiar batek biraoak sartzen baditu denbora guztian, eta zuk alemanera itzuli behar baduzu bere jarduna, ez dituzula irainak itzuliko, zeren gaztelaniaz halako hitz gordinak normalak izan daitezke komunikazio-testuinguru horretan, baina alemanez ez, eta aleman-hiztunaren tzat oso bortitza izango litzateke.

Adimen artifizialera itzulita, badago beste arazo nagusi eta nabarmen bat: makina hauek denak, ente super konputazional hauek, hegemoniaren oinarrien arabera prestatuta daude.

Ildo horretatik, kritiko mintzatu zara

Galiziako Gobernuaren proiektu batekin, Nós izenekoa: jendeari eskatu diote bere ahotsa grabatzeko galegoz hitz egiten, adimen artifiziala elikatu ahal izateko.

Hizkuntza ez-hegemoniko kasuan, kontuz ibili behar dugu aurrerabideari buruzko ideiekin. Gogora datorkit nola ibili ziren Galizian, aurrerabidearen izenean, urtegia urtegiaren gainean egiten. Galizian, mila erreken lurraldean, zer-eta bi mila urtegi eta mini-zentral egin zituzten. Orain ideia hori deseraikitzen hasi da, baina Nós proiektuaren kasuan antzekoa da.

Aurrerabidearen ikuspegi bat saltzen digute, eta kasu zehatz honetan oso makurra da, hizkuntzak zeharkatzen duelako, eta gurean hizkuntza da identitate bat izatea ahalbidetzen diguna, eta baita geure euskarria ere, komunitate gisa. Eta esaten dizute: nola ez da ba galegoa eskura egongo tresna ho-

rietan guztietan? Zure aurrerabidearen neurgailu moduko bat da. Aitzakia hori baliatzen dute, jendearen ekarpenak behar dituztelako makinak galegoz ere egin dezan, baina nik, egia esan, ez ote dudan nahiago makinak ni ez ulertzea. Nire azken obran, Izaki osoen trilogian, ustez hizkuntza bakarra existitzen da, baina beste hizkuntzek lurpean iraun dute, eta hortxe datza iraultza: fikziozko etorkizun distopikoan, makinek ezin ulertzea eta eskuz idaztea bilakatzen dira babesleku.

A casa do amo (Ugazabaren etxea) liburua argitaratu berri duzu, galizierazko literaturako diskurtso kolonial eta arrazisten analisia.

Niretzat, hasteko, garrantzitsua zen gai honi heltzea, eta kolektiboki ohartzea gai honi eutsi behar diogula eta gogoe-ta-prozesu kolektibo bat egin behar dugula; halaber, beste begirada batetik aztertu nahi nuen literaturaren historiografia. Eta uste baino sorpresa gehiago daude. Beste adibide bat aipatzearren: literatur kanona emakumeen edo disidentzien ikuspegitik aztertzen dugunean, goitik behera aldatzen da; emakumeek galegoz idatzitako literaturari erreparatzen zaionean, maiz literatura galegoaz egiten diren baieztapen orokortzaileak funtsik gabe geratzen dira,

edo ez dute bat egiten obrek. Ba, kasu honetan, antzera: liburuan diskurtso kolonialaren adibideak aurkezten dira, baina baita horren kontrakoak ere. Maiz, pentsatzen da hau gai moderno bat dela, iritsi berria, eta lehen jendea ez zela enteratzen. Hala, iraganeko pertsonak arrazistak izatea justifikatzen da, hori normala zelakoan; ba ez, ez zen normala,

garai berean beste ahots batzuk beste kontu batzuei buruz ari ziren eta. Hori guztia berrikusi behar da, eta baieztapen hutsailetatik atera, hutsala ez dena argitara emateko.

Adibidez?

Oso garrantzitsua da zenbait gauza normalizatzeari uztea, une guztiz kritikoan gaude-eta. Gure kasuan, mugimendu politikoak eta hizkuntzaren aldeko mugimendua bera klase popularren eta emakumeen aldean egon dira beti, eta kontuan hartuta gaur egungo egoera zein den, alegia, kontuan hartuta diskur-

“
Itzulpena inoiz baino ikusgarriagoa da, inoiz baino eskurago dago, baina egiaz, inoiz baino ikusezinago da: izan ere, prozesua ez da ikusten”

tso arrazistak izugarri hazten ari direla, eskuin muturra gizartean loratu dela, ez soilik egiturak arrazistak direlako eta indarkeria sinbolikoa dagoelako, ezpada arrazakeria pertsonen egunerokoan askoz presenteago dagoelako, ba, eskura ditugun tresna guztiak erabili behar ditugu. Eta horretarako, lehenik eta behin, analisi bat behar da.

Harrera beroa jaso du liburuak.

Bai, hainbeste ezen agortu egin den hilabete gutxi batzuen buruan. Edizio txikia zen, baina bada zerbait, saio baten kasuan, hilabete eskas batzuen ostean zirkulaziotik kanpo egotea jada. Ea berrargitaratzen den. Bestalde, asko aipatu da, eta irudipena dut jendea hala-ko zerbaiten zain zegoela, oinarri baten zain, hortik abiatuta ekiteko, eztabaida-ekin jarraitzeko.

Pertsona zurion zereginaz-eta hitz egiten denean, nik argi daukat erabili egin behar dudala sistema honen barruan daukadan posizioa. Jakin badakit, liburu hau idatzi eta argitaratu ahal izan badut, neure posizioagatik izan dela, eta interesatzen zaidana da liburuak, gero,



beste leku bat irekitzea. Jada hor dau- den espazio batzuetatik elikatu da nire lana, eta aitortza egin behar zaie espazio horiei eta kide arrazializatuiei. Liburuak, berez, jende zuriarentzat da, gogoeta egin dezagun, eta gogoeta horretatik abiatuta jabetu gaitezen inguruan nor daukagun eta zertan dabilzan.

Pertsona zurioi dagokigu lanketa hori egitea.

Liburuan bertan azaltzen dudan moduan, menderakuntza-egoeran dagoen pertsonak ez dauka pedagogia egiteko inongo derrigortasunik; kontrara,

zeuri dagokizu informazioa biltzeko, zeure burua janzteko eta entzuteko ardura. Eta liburu honek ere ariketa hori proposatzen du: irakurri testu hauetako batzuk, eta jar zaitez institutuko ikasle baten azalean; pentsatu testu izugarri bortitz horiek irakurtzen dabilen neska arrazializatu bat zarela. Adimen artifiziala elikatze-ko ahotsak grabatu ordez, has gaitezen parean daukagun jendeari jaramon egiten, eta ez daitezela sentitu bizi diren komunitatetik baztertuta. Nahi baldin baduzu Galiziako jende arrazializatuak galegoz hitz egitea eta bere hizkuntza-komunitateko kide oso sentitzea, ezin dituzu zenbait testu zabaldu modu akritikoan. Testu horiek irakur ditzakezu, noski, zenbait gauza azaltzeko, baina ezin diozu, adibidez, Día das Letras Galegas [Galizierazko Letren Eguna] eskaini Florencio Delgado Gurriarán bezalako bati [2022an eskaini zioten, hain zuzen], zeinak gauza lazgarri batzuk idatziak baititu. Ez al dago omentzeko moduko jende aproposagorik? Garrantzitsua da prozesu hau zabaltzea, eta badirudi badagoela interesik bide hori ibiltzeko. ●

Apirilekoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**
- **10 ZENBAKI URTEAN**

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



Iritziak

Nora (eta nola)



XIMUN FUCHS
ANTZERKILARIA

Antzokiko argiak piztu dira. Diskretuki, pasabideetan nabil: emanaldi eskolarra hastear dago. Gazteak korrika doaz beraien eserlekuetara, bizi-bizi eta alai. Ateraldiak askapenaren zaporea du, baina askatasun sentsazio hori gaztelaniaz edo frantsesez mintzo da. Goiz honetan, euskara eszenatokian baizik ez da entzungo. Gazteek ez dute kulparik, ardura beraien gain ezartzea gezurka aritzea dela iduri zait ("indar bat egingo balute..."). Galdera da: orain arte zer eskaini zaio gure gazteriar "ixo" zakar bat ez bada? Noiz emango zaio gazteriar ezinbestekoa zaion kultura, eduki sakon eta zabalarekin eta euskaraz? Noiz? Iritzi-askatasuna fartsa bat bilakatu da testuinguru horretan, egitatei buruzko informazioa eta eztabaida debekatuak direlako. Bai, debekua eta ezintasunaren arteko tarte oso estua da.

Akulturatu gara, aisialdiaren mese-detara. Aisialdi industriak eskaintzen dituen ekoizpenek itsutu gaituzte, beste kontsumo objektu guztiek egin duten bezala. Denbora pasatzeko balio digute, zentzurik eta kulturarik gabeko denbora. Mamuak bilakatu gara, denboraren aurkako lasterketa infinitu batean. Eta gure akulturazioa jasateko, gure hutsunea alkoholoz eta janariz estaltzen dugu. Amerikar filmetako indiano alkoholikoen antzekoak gara. Gure erri-tual guztiak ahalik eta gehien edateko topaguneak bilakatu dira. Egoeraz baliatuz, masa-medioen ekoizleek kulturaren

Gure kultura ezin denez
dagoen bezala saldu,
aldatu eta arindu egiten
da kontsumitzeko
errazagoa izan dadin.
Jan, edan eta saldu,
turismoaren industriaren
iruditeri zoragarria

eremu osoa odolusten dute, salgarria daitekeen material egokia aurkitzeko xedearekin. Izan ihauteri, antzerki, film, dantza, kantu, San Juan ala Urtezahar. Baina gure kultura ezin denez dagoen bezala saldu, aldatu eta arindu egiten da kontsumitzeko errazagoa izan dadin. Jan, edan eta saldu, turismoaren industriaren iruditeri zoragarria. Hori da apustua.

Hezkuntza lanarekin soilik horrelako gizarte bat "heziagoa" bilakatuko dela sinestea, iruzurra sinestea da. Kontsumoaren gizarteak, ukitzen duen guztiaren hondamena dakarrelako, izan kulturaren, ekologian ala hezkuntzan. Kontsumismoak gure komunitatea izozten du.

Gaur egun, biztanleriaren erronkak gero eta korapilatsuagoak direnez, oso

zaila zaigu begi kliska batez osorik barneratzea zein izan litekeen norbanakoaren edo komunitatearen ardura eta eginkizuna; eta are zailagoa zaigu, haien arteko harreman guztiak atzematea. Orogen buru, ezinduek eta indargabe-tuak gara kultura eta artea debekatuak zaizkigulako (legez edo baliabidez).

Alta, artearen irudimenarekin, kontzeptu konplexuak bereizmen finez gureganatu ditzakegu. Pentsamenduak erroto, hedatu eta garatzeko, euskalduna euskaldun denetik, bide eraginkor eta indartsuena gure kultura da. Euskal kultura euskal komunitateari mintzo zaion gorputza da. Ez ditu bakarrik gure belarriak goxatzen edo begiak distirarazten; espirituari hitz eginez, ariman eragiten du eta bihotza astintzen. Gure pentsamenduak, ametsak eta mamuak molde berezian antolatzen ditu gure komunitatearen muina mugimenduan jar dadin. Edozein gizarteri ezinbestekoa zaion oldartze gaitasuna elikatzen du.

Ausardia, oldartze gaitasuna, desiraren eta zilegitasunaren ohantzea da. Ez mehatxu gisa baina aldarrikapen gisa, zibilizazio ahalduntze gisa. Desira hori, ezinegon hori, hiperaktiboa da, norberak bere buruari zor dionaren kezkaren marka. Errebantxa hau, ibilbide inizatiko bat bihurtu da herri aske baten bilaketan. Askotan ahazten badugu ere, hortik gatoz: askapen desiratik. Baina orain, nora (eta nola) joan nahi dugu herri, komunitate eta norbanako bezala? ●

Espainiako bandera



CIRA CRESPO
HISTORIALARIA

Juan Bautista Bilbao *Batxi* idazleak barku batean egiten zuen lan, eta bere bidaietako kronikak bidaltzen zituen *Euzkadi* egunkarira. Horri esker, XX. mende hasierako mundu osoko kronika interesgarriak ditugu, euskaraz. 1915eko ekainean, hain zuzen, Murtzian egin zuen geldialdixoa. Hara hor bere kronikaren zati bat:

“Joan naiz gaur herrira eta atzetik izan doaz eunen bat mutili tiki Ingländartarra nazalakuan 'Jhoni, givi guan peny' esaten, arrayua!

–Ni ez nauk inglandarra ni euzkalduna banok...

–'E usté basco? Ese pueblo no e inglés?' dinost agure batek.

Eztozu ikusten ba gure ontziak ze ikurrina dekon atizan? Karabiñeru batek diñost orduan: 'Es jente que no sabe de letra y por eso no conoce la bandera'. ¿Zeun ikurriña be eztuzue ezagutzen? Gero etorriko zaire gu ilustretan ara gure errira zuen ikuriña larregi be baster guztietan ezatuzen daben tokira”

Batxik “ikurrina” dioen tokian, Espainiako bandera ulertu behar da, noski. Kronika horren arabera, garai hartarako Euskal Herrian oso presente zegoen Espainiako bandera, eta, dena delakoa-gatik, itxura denez, Murtzian ez. Historia liburuetan pixka bat begiratu ondoren jakin dut Gerra Karlistak izan eta gero, estatu nazio berria eraikiko bazen, ezinbestekotzat jotzen zela Espainiako nazioaren sinbolo argi eta zehatza. 1908an, konkretuki, ezarri zen jaiegun nazionaletan eraikin publiko guztietan



DOM CAMPISTRON

bandera astintzeko derrigortasuna. Hala ere, duda daukat jai egunetan bakarrik jartzen ote zuten, eta sentsazioa daukat behintzat Euskal Herrian egunero erakusten zela bandera, eta Murtzian, berriz, askoz gutxiagotan. Zergatik ote?

Gogoratzen naiz Euskal Herrira etortzen hasi nintzenean, 2002 inguruan, panorama oso ezberdina zela. Ez zen Espainiako banderarik inon ikusten. Katalunian bai, leku ofizial guztietan, normaltasunez jartzen ziren Espainiako banderak. Gu, katalanok, oso internazionalak ginen, kosmopolitak! Garai hartan ez genien banderei kasurik egiten, antza. Baina, hala ere, ondo gogoratzen naiz nire pisukideak LGTBI mugimenduan oso sartua bera, eta, berez, bandera nazionalen koloreaz gehiegi arduratzea tokatzen ez zitzaiona nola esan zuen

Diada egun hartan: “Nik *senyera* jarri nahi dut balkoian”. Eta denok egin genuen berehala bat. Nire etxeko balkoian *senyera* bat ikusteaz pozten nintzen... a, ze bitxia.

Kataluniako urriaren bateko erreferenduma egin eta hurrengo udan kruzero batera gonbidatu gintuen amak. Banekien, jakin, espainiar sentimendu nazionala puztuta zebilela une horretan, baina beldurgarria egin zitzaidan ikustea barkuko turista espainiar ia guztiek ia edozein txoko nola erabiltzen zuten bandera espainola erakusteko: motxilan, kamisetako lepoan, zapatilan... Eta nola hori ez zen gertatzen beste estatuetako hiritarrek. Uste dut espainoilen artean bandera obsesiboki erakutsi behar horrek oraindik ere jarraitzen duela. Adibidez, alabak aipatu zidan Zaragozatik institutura etorritako neskato baten kasua. Mahai osoa bandera espainolez apaindua omen zeukan.

Duela aste batzuk hitzalditxo bat ematera joan nintzen Sortuko ekimen batera. Ekitaldiaren amaieran koloretako bandera handi batzuk atera zituzten, ezer aldarrikatzen ez dutenak. Ikurrina ez nuen ikusi. Nire ustez, sinbolo batzuk, Espainiako testuinguruan, erresistentzia nazionalako ikurrak dira, eta horregatik ere antifaxistak, edo horrela ulertzen ditut nik, behintzat. Duda daukat ea erasoaldi espainolista eta faxistaren une hauetan, ikur nazionalak alde batera uztea luxu handiegia ez ote den. ●



IÑIGO MARTINEZ PEÑA
FILOSOFOA

Haurtzaroaren denbora

Haurtzaroaren amaiera eleberri distopikoa idatzi zuen Arthur Clarkek, 1953. urtean: jolasteari utzi dion gizarte baten deskribapena. Eta ez al da bereziki haurtzaroa jolasteko garaia? Jolasteko, harritzeko, ikusmiratzeko eta galdera biziak egiteko unea. Ulertzeko tartea zabalik uzteko momentua, erantzunak emateko edo jasotzeko urgentziarik gabe.

Kontua da, egun, jolasteko edo galdetzeko eta ulertzeko denbora murrizten ari zaigula. Erabakiak hartu behar dira, arin! Berehalako emaitzen presioak harrapatu gaitu. Ez ote da helduona urgentzia hori? Ez ote gara ari helduon lehiakortasun eredu bera promozionatzen? Zer dira bestela *MasterChef* edo *Eurovision Junior* moduko programak? Haurtzaroa ezabatzea suposatzen dute? Errendimenduaren gizartea, agian, haurtzaroaren kontrako gizartea ere bada.

Telebistaren inguruan, dena den, bestelako irakurketa bat egin zuen 1982an Neil Postmanek, *Haurtzaroaren desagertzea* deituriko saiakeran. Haren ustez, gurasoak etxetik kanpo lan egiten hasi zirenean, umeak pantailaren aurrean utzi zituzten. Horrekin batera, haurrek helduon kontuak zuzenean ikusi zituzten eta, beraz, telebistaren etorrerak, “haurtzaroaren amaiera” delakoa ekarri zuen. Pantailak agerian utzi zituen, gordin-gordin, sexualitatearen eta heriotzaren moduko gaiak. Aurreko garaian, irakurtzen

jakitea ezinbestekoa zen helduon “sekretuetara” iristeko. Oso bestelakoa da liburuaren logika! Ikus-entzunezko komunikabideen nagusitasunak, aldiz, berdindu egin ditu haurtzaroa eta helduaroa; bien arteko bereizketa hautsi du. Eta pentsa joera hori zenbateraino garatu den mundu digitalaren garaipenarekin. NBERen txostenaren arabera, *online* pornografia 12-17 urteko haurrek kontsumitzen dute batez ere... Postmannen ustez, xalotasuna eta sekretua dira haurtzaroaren ezaugarri; orain, garden erakusten dira norbere kabuz esperimintatu eta apurka-apurka deskubritu beharrekoak.

Kontuak kontu, errendimenduaren logikatik kanpo, haurtzaroan galdetzeko, ikertzeko eta jolasteko denbora “galdu” hori berreskuratu beharko genuke? Galdutako denborari esker egiten gara heldu! Jolastea, gainera, kontu serioa da umetan, ez da entretenimendu soila: mina, heriotza, sexualitatea eta bakardadea irudikatzen modua izan daiteke. Superheroietara jolastea mugak irudikatzen modu bat da; ezkutaketan aritzea, helduari “Gal nazakezu? Ni bilatzeko adina maite nauzu?” galdetzeko bidea. Desira ez baita sekula anonimoa izaten, eta horren aztarnaren bila aritzen dira umeak buru-belarri, jakintza propio bat eskuratu nahian... Beraz, ondo legoke haurtzaroaren denbora bizirik mantentzea: etorkizuna urgentziarik gabe eraikitzen denbora izatea. ●

Erantzunak



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Badira etxebizitzak saltzeko atarietara harpidetuta daudenak, etxe bat erosi nahiko luketelako. Tarteka etxeak ikusteko hitzorduak ere egiten dituzte, eta seguru nago saltzaileak badakiela pertsona horiek ez dutela etxea erosiko, ez bisitan etxeari aurkitzen dizkieten *baina* horiengatik, nahikoa dirurik ez dutelako baizik. Gauza bera gertatzen da astero arropaz betetako paketeak lantokian jasotzen dituenarekin. Arropa guztiak probatzen ditu, beztitzeko soineko guztiak ere bai, eta bueltatu egiten ditu, aspaldi ez dutelako ezkontza batera gon-

bidatu, eta, zer esanik ez, festa elegante batera. Nik, garai batean, lanez aldatzearekin amets egiten nuen, eta egunero lan eskaintzak begiratzen nituen, eta oposizioetarako gai zerrendak prestatu. Nork ez du inoiz beste bizitza bat izatearekin amestu. Nik beti pentsatu izan dut horrengatik naizela zine zalea eta oro har fikzio zalea. Bada, ez. Nago pelikuletan eta liburuetan beti aurkitzen dudala gertatutakoa ulertzeko arrazoiren bat. Bizitzan, ordea, minik handiena eman didate joan egin direnek, nik oso ongi jakin gabe zergatik egin duten. ●

Segurtasuna, etorkinak eta beldurra



KIMETZ ARANA BUTROE
BARATZEZAINA

Segurtasun falta dagoen irudipena handitu dela azaldu du Eustaten azken txostenak. Gurean, Trapagaranen, *Segurtasuna orain, delinkuenteen aurka* manifestaziora deitu dute herri-tar batzuek.

Bi izan dira sentsazio hori zabaltzeko arrazoiak. Batetik, udalak Udaltzaingoaren kudeaketan izandako utzikeriak bidea ireki dio euskal eskuinari gaia erdigunean kokatu eta eztabaida pizteko. Bestetik, arrazoi nagusia izan da herrian hutsik dauden eraikinetan bizi diren Afrikako immigranteen harat-honatek zenbait kalearekiko pertzepzio aldaketa eragin dietela, eta beldur eta segurtasun ezaren irudipena sortu.

Eztabaidan azalderia nagusitu da, eta dena *delinkuenteak ez, immigrante langileak bai* lelora sinplifikatu eta giro kezkarria sortu da.

Segurtasun eza sentsazio subjektiboa da, egoera baieztatzeko aski da herriko lapurreta eta erasoak salaketa kopurua aztertu eta aurreko urtekoekin alderatzea. Momentuz, ez da horren daturik azaldu.

Batzuen ustea da suhiltzaileen eraikin zaharretan dauden pertsonak kanpora-

Asistentzialismoa
gainditu eta ezkerreko
alderdien diskurtso
osatuagoak behar
ditugu, elkartasuna
praktikan ezarri
eztabaida eragingo
duten militanteak

tuta arazoa amaituko dela, baina oker daude, Ertzaintzak behin baino gehiagotan eraikina hustu arren berehala berriz jendez betetzen baita.

Ezagutu gabeko egoera baten aurrean gaude. Afrikatik immigrazioaren ondorioz izugarri hazi da eraikin hutsetan bizi den jende kopurua eta gehiago haziko da aurrerantzean ere. Gure herrian jendea bizi da hutsik dagoen suhiltzaile eraikinean, etxe zaharretan, Barakaldo bideko lantegi abandonatueta eta Galindo auzoan sortzen ari den txabola eremuan.

Poliziarenaz gain, ordea, ez da administrazioaren bestelako interbentziorik izan. Nortzuk dira hor bizi direnak? Nondik datoz? Zer nahi dute? Zer baliabide dugu? Nola erabili? Zeintzuk dira baliabideen mugak? Berandu goaz, bada ekinbideak pentsatzen hasteko garaia.

Gure etxean errolatu ditugu beharra izan duten etorkinak eta etxea ere konpartitu dugu kalean zeuden pertsonekin. Horregatik, badakigu herrian badirela logela batean bizitzeagatik etorkin familiei hilean 400-500 euro eskatzen dizkietean, edo bertan bizi ez baina errolatuta egoteagatik immigrantei hileko 50-100 euro kobratzen dizkieten autoktonoak. Hori ez da azalarazten eta ez ditugu etxetxe horiek jazartzen.

Asistentzialismoa gainditu eta ezkerreko alderdien diskurtso osatuagoak behar ditugu, elkartasuna praktikan ezarri eztabaida eragingo duten militanteak, eta etorkinen jatorrizko herrietako mugimenduak ezagutu eta bertako baliabideen lapurretaren aurka ekingo duten erakundeak. Gorrotoaren diskurtsoetik aldenduta, eman diezazkiegun belaunaldi berriei egoerari erantzuteko egiazko baliabide eta tresnak. ●

44.
LIZARDI
SARIA

- Euskarazko gazte literatura sustatzeko.
- Lanak aurkezteko epea: 2025eko uztailaren 14a.

Informazio gehiago: www.zarautz.eus



ZARAUZKO UDALA



ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKO **A** 2025

FINALA

APIRILAK 5

LARUNBATA GASTEIZ

11:30eAN

FINAL AURREKOA

PLAZAZ PLAZA

ESKIBEL PLAZAN HASITA

14:00eTAN BAZKARIA

16:30eAN SAIOA

CONDE DE ÁLAVA JATETXEAN



ALTUBEPEKOAK
(Aiaraldea)



4 GARA
(Lautada)



ARLOBIKO BARDOAK
(Gorbeialdea)



PINTO PINTTO
(Gasteiz)

www.bertsozale.eus/araba www.bertsosarrerak.eus



MAHAI-INGURUA HAIZEA BARCENILLA ETA AHOZTAR ZELAIETA REKIN
MESA REDONDA CON AHOZTAR ZELAIETA Y HAIZEA BARCENILLA

Biblioteca de Bidebarrieta ko liburutegian

2025/3/3

19:00etan



KULTUR ESPAZIOAK

ESKU PRIBATUA
ZERBITZU PUBLIKOAN

Lantegia espazioa, Esperantza liburutegia, Arte Ederren Museoko eta Euskal Museoko lanak, Urdaibaiko Guggenheim proiektua... Ugari dira Bilbon eta Bizkaian kulturaren ikuspegi utilitarista eta pribatizazioa agerian uzten dituzten adibideak. Alde Zaharreko haur eta gazteentzako liburutegiaren kudeaketa publikoaren alde Bilboko Liburuzainek darabilten borrokaren haritik tiraka Euskal Herri osoan errotutako joera aztertu dugu.

 JONE GARTZIA GERRA  HODEI TORRES / ARGIA CC-BY-SA

Urte eta erdi luzetxo daramate Bilboko Liburuzainek borrokan, Alde Zaharreko Esperantza eraikineko haur eta gazteen liburutegia, Udal Liburutegien Sareko gainerakoak bezalaxe, langile publikoek kudeatu dezatela exijitzen. Auzokideen “aldarrikapen historikoa” izan den liburutegia, Bilboko Udalak esku pribatuaren menpe utzi du bere kudeaketa, zerbitzuaren eta bertako langileen kaltetan. Horrez gain, lizitazio prozesuan zehar izandako gardentasun falta kritikatu dute.

Esperantza liburutegiarena Bilbon eta Bizkaian orokortua den azpikontratatzeko joeraren baitan kokatzeko, hitzaldia antolatu zuten martxoaren 3an Bidebarrieta Liburutegian, *Kulturaren pribatizazioa* goiburupean. Haizea Barcenilla ikerlari eta Arte Ederretako irakaslea eta Ahoztar Zelaieta ikerketa kazetaria aritu ziren hizlari; bien artean zirriboratu zuten Bilbon eta Bizkaian bereziki errotua den kultur munduaren pribatizazioaren mapa.

Solasaldian aipaturikoetatik ez ezik, Bilboko Liburuzainak kolektiboko Goiuri Eguzkiza eta Idoia Delgadorekin izandako elkarrizketatik abiatuta ondu du ARGIAk hurrengo erreportajea. Bilboko Gazteria eta Kultura sailekin harremanetan jartzen ahalegindu gara, baina ez dugu erantzunik jaso.

ESPERANTZA HAUR ETA GAZTE LIBURUTEGIA

Bidebarrieta Liburutegiko langileek 2023ko udan jakin zuten handik 300 metro eskasera zabaltzear zegoela Esperantza liburutegia, haur eta gazteentzako izango zena, Alde Zaharreko elkarteek urtetan eskatu bezala, baina kudeaketa pribatua izango zuela. “Harri-

Bilboko Udalak eskaintzen dituen *Haurgunea* eta *Gaztegunea* zerbitzu guztiak enpresa pribatuek kudeatzen dituzte, nagusiki Hazian Kultur Elkarteak

duraz eta haserre” jaso zuten notizia, eta liburuzainen kolektiboa sortu zuten berhala. Ordutik, kexu dira Udal Liburutegien Sareko zuzendari Itziar Follak ez zielako ezer esan, “ekintza gaitasunik” izan ez zezaten.

Horiek horrela, abagune oso txikiarekin abiatu zuten borroka; artean, kontratuaren oinarri teknikoak argitaratuta zeuden, baina lizitazioa ez. Lehiaketa geldiaraztea izan zen Bilboko Liburuzainen lehen eginahala. LAB sindikatuak bideratu zuen prozedura administratiboa eta lehen instantzian geldiaraztea lortu bazuten ere, 2024ko urtarrilean azkenengo instantziak bide eman zion lizitazioari.

Lehen ekinbidea zapuztuta, liburuzainak auzoko eragileekin eta udalbatzako alderdi politikoekin jarri ziren harremanetan —EAJren eta PSE-EE-ren erantzunik ez zuten jaso—, eta bilera bat eskatu zuten udal ordezkariarekin. Gonzalo Olabarria Kultura zinegotziarekin, Iñaki López de Aguilera Kultur arloko zuzendariarekin, Itxaso Erroteta Gazteria eta Kirol Saileko zinegotziarekin, Itziar Folla

Udal Liburutegien Sareko zuzendariarekin eta Gazteria Saileko teknikariarekin elkartu ziren, zera eskatzeko: Bilboko Udalak liburutegiaren zerbitzua langile publiko bidez bermatzea, baliabideak bazeudela horretarako, eta kudeaketa pribatizatzeko asmo edota arrazoien gainean azalpenak ematea.

Bi argudio nagusi jaso zituzten: batetik, haur eta gazteentzako Esperantza liburutegia ordutegi zabala izan behar zuela eta, antza, udal langileek ezingo zutela bete; eta, bestetik, proiektu “transbertsal, komunitario eta kolaboratiboa” izatea nahi zutela. Izan ere, Esperantza liburutegiaren kudeaketa eraikin berean dauden Haurgunearekin eta Gaztegunearekin batera lizitatu zuen Udalak. Azken bi zerbitzu horiek erabat azpikontratatuta daude Bilbo osoan, eta horietako asko Esperantzako lehiaketa irabazi zuen Hazian Kultur Elkarteak kudeatzen ditu.

Liburuzainen kolektiboko Goiuri Eguzkizak uste du urte eta erdiren ostean argi geratu dela “argudiook gezurra” zirela. Izan ere, gaur egun, liburutegia arratsalde baino ez dago irekita, eta iragan udan bi hilabetez egon da itxita. Ez hori bakarrik, elkartearen temari esker lortu zuten astean zehar ordutegia egunean ordubete gehiagoz luzatzea eta larunbatetan arratsalde ere zabalik egotea. “Hainbeste txalotzen zuten eredu parte-hartzaile hori aldebakarrekoa izan da, eta nahiz eta auzoko talde eta eragileekin bilerak egin dituzten, ez dituzte haien beharrak eta kexak aintzat hartu”, gaineratu du Eguzkizak.

Kolektiboko kide Idoia Delgadok, berriaz, nabarmendu du auzoetako liburutegietan eragileekin lan komunitarioa egiten dutela urte osoan, eta udalak argudio horiek “pribatizazioa justifikatzeko” baino ez dituela erabiltzen. Duela pare bat urte, Basurtuko liburutegian, Esperantzarekin egin duten gauza bera egiten saiatu zela seinatu du Delgadok, hots, Gazteria Sailaren barruan dauden proiektuak liburutegiarekin batera lizitatzea. Orduko hartan, langileen erresistentziari esker lortu zuten liburutegiaren kudeaketa publikoari eustea.

Garrantzitsua da azpimarratzea Bilboko Udalak eskaintzen dituen Haurgunea eta Gaztegunea zerbitzu guztiek kudeaketa pribatua dutela eta Gazteria Sailaren barruan kokatzen direla. Udal Liburutegien Sarea, ordea, Kultura Sailaren mende dago. Bestalde, Esperantza liburutegiaren eraikin berean kokatuta

dagoen pilotalekua jada ez dago herri-tar ororentzako zabalik: Bilbao Kirolak erakundeak kudeatzen du orain, eta bertako erabiltzaile edo pilota elkarte-ko kide izan beharra dago baliatu ahal izateko, Udalak lanak hasi baino lehen auzokideei agindutakoaren kontrara.

UDAL LANGILEAK, ENPRESA PRIBATUARENTZAKO LANEAN

Esperantza eraikinaren kudeaketan “anomalía” bat gertatzen dela azaleratu du Eguzkizak. Liburutegiaren kudeaketa Haurgunearenarekin eta Gaztegunearenarekin batera lizitatu zenez, Gazteria Sailaren barruan dago Esperantzako haur eta gazteen liburutegia, Udal Liburutegien Sarean egon eta bertako aurrekontua, funtsak eta baliabideak baliatuagatik ere.

Bidebarrietako liburuzain diren langile publikoek kudeatzen dituzte Esperantzako eskariak eta erosketak, prozesu tekniko guztiak betetzen dituzte eta bertara bidaltzen dituzte liburutegien garraio zerbitzuaren bidez. Bertan eskaintzen den animazio programazioa ere udal liburuzainek kudeatzen dute. “Paradoxa handia gertatzen da: udal langileok enpresa pribatuarentzako ari gara lanean”, salatu du Eguzkizak. Liburuzainak zehaztu du Hazian Kultur Elkar-teak zerbitzua emateagatik 300.000 euro baino gehiago jasotzen dituela, BEZa Udalak ordaintzen duela eta liburutegiko funts guztiak Kultura Sailetik ateratzen direla. “Gure azpiegitura eta kanal guztiak erabiltzen ditu musu-truk”, erantsi du.

Ez hori bakarrik: eraikina Bilboko Udalarena denez eta haren iruditegi korporatiboa nonahi ageri denez, erabiltzaile askok ez dakite zerbitzua azpikontratatuta dagoela eta bertako langileak ez direla funtzionario publikoak. “Engainua” izateaz gain, zerbitzuaren kalitateari kalte egiten diola salatu du Eguzkizak, bertako langileek baldintza “oso prekarioak” dituztelako. Halaber, gaineratu du lehiaketan Bilboko Udalak ez zuela jaso liburuzainak izan beharreko esperientziaren gaineko zehaztapenik, Haurguneko eta Gazteguneko langileekin egin ez bezala: “Badakite zer egiten duten, dena dute lotuta”.

Eguzkizak eta Delgadok argi dute Esperantzako kasua ez dela salbuespena, eta gogora ekarri dituzte Azkuna Zentroko Lantegia, Bilbao Musika, anbulantzien zerbitzua, Bilbo Bus, Bilbao Kirolak, etxek etxeko arreta zerbitzua



BILBOKO UDALA

Liburutegiaren eraikin berean dago Esperantza pilotalekua. Ez dago herritar ororentzat zabalik; Bilbao Kirolak erakundeak kudeatzen du eta bazkide izan beharra dago

eta adinekoen egoitzak, besteren artean. Areago, ohartarazi dute Bilboko Udal Liburutegian aspaldi daudela pribatizatutako zerbitzuak; esaterako, Garel-lanoko kanpo-biltegia 2013an eraitsi zen, “izugarritzko negozio espekulatiboa eginda”, eta geroztik Archivos Basurto enpresak kudeatzen du.

GUGGENHEIMETIK HASI ETA MUSEO TXIKIENETARA

Azpikontratazioen bidez pribatizatzen dena zerbitzuaren kudeaketa denez, zaila da herritarrengan duen eraginaz jabetzea. Martxoaren 3ko solasaldian Haizea Barcenillak azaldukoaren arabera, 1990eko hamarkadan agertu zen Euskal Herrian kultur munduaren

jarduteko modua aldarazi zuen lehen elementua, Guggenheim museoa, hain zuzen. Barcenillak uste du proiektua hasiera-hasieratik diseinatu zutela “industria krisiaren aurrean zerbitzuen sektorerara igarotzeko irtenbide” gisara, eta ez kultur proiektu moduan.

Guggenheim museoa eraiki zuten garaian, Euskal Herriko arte ederren museo gehienak publikoak ziren, baina fundazio pribatu gisa zabaldu zuten hura, ekarpen publikoak lagunduta. “Lankidetzara publiko-pribatu gisa aurkeztu zen, baina lankidetzara arraro samarra da: alde publikoa dirua jartzea da eta pribatua kudeatzea”, zehaztu du Barcenillak. Guggenheimek urtean hamar edo hamabi milioi euroko aurrekontu publikoa du, baina erabat modu pribatuan kudeatzen da, kontratazioak egiteko orduan zein eguneroko kontuetan.

Museo publikoetatik fundazio pribatuetarako iragatea “eredu aldaketa garrantzitsua” izan zela ziurtatu du Barcenillak. Izan ere, horren ostean Bilboko Arte Ederren Museoa fundazio izatera igaro zen, eta Gasteizko Artium fundazio moduan jaio zen. “Egun ditugun arte ederren museo handi gehienak fundazioek kudeatzen dituzte, ez dira guztiz publikoak, nahiz eta jasotzen duten diru gehiena publikoa izan”, laburbildu du irakasleak.



NEURRIZ KANPOKO ERAIKUNTZA LANAK

Kulturaren ikuspuntu "utilitario" horren baitan, museoetatik etekin ekonomikoa ateratzeko beste modu adierazgarri bat eraikuntza sustatzea dela azaldu du Barcenillak. Bilboko museo gehienak oso eraikin adierazgarri eta garestietan daude, eta, ikerlariaren hitzetan, Guggenheimek ireki zuen bide hori.

Arte Ederren Museoan eta Euskal Museoan gaur egun egiten ari diren obren adibideak jarri ditu mahai gainean Barcenillak: bere esanetan, bietako batek ere ez dio erantzuten museoek duten arazo handienari, gordailurako espazio faltari, alegia. Arte Ederren Museoaren obra "guztiz neurrigabekotzat" jotzeaz gain, gogoratu du hasierako hemezortzi milioi euroko aurrekontua 42 milioitan dagoela orain, lanak amaitzeko oraindik urtebete falta denean.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak Urdai-baiko Biosfera Erreserban eraiki nahi duen Guggenheim Museoaz ere oroitu

Eraikina Bilboko Udalarena denez, iruditegi korporatiboa ageri da nonahi. Erabiltzaile askok ez dakite zerbitzua azpikontratatuta dagoela

da Barcenilla: "Herritarren iritzia gainera inposatu nahi dute proiektua eta ekonomian izango duen eragina baino ez dute aipatzen, inork ez daki zer kultur proiektu egin nahi duten ez zer funtzio izango duen".

Hala, egun Bizkaiko museoek duten helburu bakarra "turismoa erakartzea" dela berretsi du Barcenillak, "ez kultura sustatzea eta bertan bizi garenon bizitza artistikoa indartzea". Eredu honen arris-

kuaz ohartarazi du: "Museoak eredu pribatura bultzatzeko presio horren bidez, kulturaren berezko balioak gutxiesten dituzte, ez zaie axola kulturaren balio sinboliko eta adierazgarria".

AZKUNA ZENTROKO ZUZENDARIAREN DIMISIOA BULTZATU ZUEN MUGIMENDUA

Sona berezia hartu du Bilbo erdiguneko Azkuna Zentroko Lantegia espazioan gertatu denak, zuzendariaren itxurazko bat-bateko dimisioak. Hain justu ere, hori etorri zen Udalak jakinarazi zuenean artista eszenikoei zuzendutako proiektuaren espazioa La Caixa fundazioari lagako ziola, azken horrek STEAM gela bat irekitzeko. Fernando Pérezek abenduaren 12an aurkeztu zuen dimisioa, La Caixa erdian sartzea "kudeaketa ereduaren gaineko desadostasunetan azken tanta" zela argudiatuta. Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean, 160.000 euro emango dizkiote La Caixari, eta obra egongo diote.



Ahoztar Zelaia, Goiuri Eguzkiza eta Haizea Barcenilla.

Barcenillak prozesu guztiaren garrantasun falta kritikatu du: "Dena egin dute ezkutuan; Gabonak hasi baino aste-bete lehenago iragarri zuten eta zuzenean zuzendariaren dimisioa etorri zen, erabakia hartuta zegoelako". Uneotan, Bilboko Udalak oraindik ez du zuzendariaren plaza bete, eta Bilbao Arteko zuzendaria ari da bi proiektuak kudeatzen; Barcenillaren ustez, bi plazak batzea "oso kaltegarria" izan daiteke. Azkuna Zentroan hiru proiektu daude -liburutegia, kiroldegia eta proiektu kulturala-, eta hirurak esku pribatuek kudeatzen dituzte.

HAZIAN, ALAIKI ETA ORTZADAR

Aipatutako adibideekin, Barcenillak hitzaldian salatu du Bizkaiko museo txiki guztiek pribatizazio prozesuak jasan dituztela eta lizitazio guztiak Alaiiki eta Ortzadar elkarteek "monopolizatu" dituztela. Ahoztar Zelaieta kazetariak berretsi du Bilbon eta Bizkaian kultur espazio gehienak Hazian, Alaiiki eta Ortzadar elkarteek kudeatzen dituztela, eta ia ezinezkoa dela haiekin lehiatzea. Zelaietaren hitzetan, hiru enpresak EAJ-ren gertukoak dira eta "aukera berdintasunaren printzipioa higatzen ari dira".

Izan ere, kazetariak argitu du Alaiiki enpresa 1990eko hamarkadan sortu zutela Gotzon Bilbao Leioako zinegotzi eta BBBko kide izandakoak eta Andoni Busquets Basauriko alkate ohiak. Zelaietaren arabera, EAJk aurrez "ondo baino hobeto" zekien zerbitzu horiek pribatizatuko zituztela, eta horretarako sortu zuten elkarte. Urte batzuk geroago sortu zuten Hazian Kultur Elkartea, "Alaikiri ustezko konpetentzia egiteko". Urte luzez Iñigo Iturrate izan zuen zuzendari, Bizkaiko Batzar Nagusietako ahaldua eta Kultura batzordeko bozeramailea zela; gero, Iturrate EAJren legebiltzarkide izan da hamabost urtez. Zelaietaren esanetan, Sabino Arana fundazioaren eraikin berean dute egoitza Hazian, Uztarri eta Gaztetxoak elkarteek: "Erabateko zigorgabetasuna dute, ez dute ezkutuan egin beharrik".

Hiru enpresen artean Bizkaiko kultur zerbitzu gehienak kudeatzen dituztela azaldu du Zelaietak hitzaldian: Bizkaiko liburutegi andana, Santimamiñe Kobak, Gaztelugatxeko bisitarien harrera-gunea, hainbat udaletako proiektuak... Haren esanetan, enpresok abantaila izaten dute lehiaketak irabazteko, urteetako esperientzia dutelako eta aurrez oinarriak ezagutzeko aukera dutelako: "Aha-



BILBOKO LIBURUZAINAK

Azkuna Zentroan, liburutegia, kiroldegia eta proiektu kulturalaren espazioa esku pribatuek kudeatzen dituzte

leginak ahalegin, ezin da merkatuan bezero-sare horiekin lehiatu, salbu eta alderdikidea bazara".

KULTUR MUNDUA, "GELDI"

Hizketaldian, Barcenillak nabarmendu du oro har kultur mundua "isilik" egoten dela horrelako egoeren aurrean. Arrazoiak? Dirulaguntzen sistemak sortzaileak "lotuta" dituelako. Mendekotasun horrek "segmentazioa" eragiten duela azaldu du: "Errepresalien beldur handia dago, jendea isilik mantentzeko modu bat da. Laguntzak prekarioak eta puntualak dira, eta urtez urte aurkeztu behar direnez, ez dago alternatibak bilatzeko tarterik".

Horretaz aparte, behin zerbitzuak pribatizatuta atzera egitea "oso zaila" dela seinatu du Zelaietak: "Alde pribatuaren zenbat eta denbora gehiago egon, orduan eta zailagoa da egoera lehenagoratzeko eta publikora itzultzea, mota desberdinetako kontratuak dituzten langileak daudelako lanean eta hori berdintzea oso zaila da". Era berean,

gogoratu du enpresari kalte-ordainak ematea saihesteko indarrean dagoen kontratua amaitu arte itxaron behar dela. Zelaietak argi esan du kultur munduan negozioa ez dela soilik kudeaketa, "baita eraikuntza eta kontratazioa ere".

Horiek horrela, Bilboko Liburuzainek borrokan jarraitzeko beharra azpimarratu dute. Iazko urtarriletik ia hilero egin dituzte elkarretaratzeak, eta aurtengo urtarrilean udalbatzara joan ziren Bihoztzean Auzo Elkartearekin batera. Salatu dute "oso gaizki" tratatu zituztela, eta landu nahi zituzten bi puntuetatik bakarra aipatzen utzi zirela. Izan ere, Esperantza liburutegiaren lizitazioa gelditzea eta pilotalekuan edonor sartu ahal izatea eraman nahi zuten udalbatzara, baina lizitazioa aste-bete lehenago luzatu zuten bi aldeek. Egunean bertan jakin zuten liburuzainek, eta pilotalekuaren afera aipatzen baino ez zieten utzi.

Esperantzako proiektu berriarekin, Alde Zaharreko auzokideak kexu dira leku komunitario bat galdu dutelako, orain ezin baitute frontoia modu librean erabili. Horrez gain, Esperantzako Hargunea eta Gaztegunea jartzeko San Frantzisko auzokoak kendu izana salatu dute. Bi guneentzako aurrekontua bera da orain, baina San Frantziskoko haur eta gazte liburutegia eta familia zaurgarrientzako programak baino ez dituzte mantendu. Animazio programazio gehiena Esperantza eraikinean egiten dute orain, eta San Frantziskokoak erabiltzaile gazte asko galdu ditu. "Horrek ume, gazte, zein familia zaurgarriak gizartearen txertatzea oztopatzen du eta ghettoa iraunkortzen da", esan du Delgadok. ●

“ ”

Errebeldia hazi egin da Argentinan, herri oso bat bultzaka ari da

Laura Taffetani

Argentinako Abokatuen Gremioa erakundean egiten du lan Laura Taffetanik (Buenos Aires, Argentina, 1963). Gobernuaren errepresioa pairatu duten maputxe ugarirekin lan egin du azken urteetan, eta Askapena antolakundeak antolatutako topaketa antiinperialisten barnean izan da Euskal Herrian. Askapen nazionala eta soziala eraikitzeko antolakunde bat hizpide izan duen hitzaldiaren ondoren elkarrizketatu du ARGIAk.

ENEKO IMAZ GALPARSORO  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Hitzaldian aipatu duzu, Javier Mileiri buruz hitz egiterakoan, 1976an ezarritako diktadura militarra hartu behar dela abiapuntutzat. Zergatik?

Mileiren garaipenak 1976an diktadura militarrekin abiatu zen prozesu baten amaiera esan nahi du. 1970eko hamarkadan Argentinan inoiz egon den masa gorakadarik handiena gauzatzea lortu zuten hainbat antolakunde iraultzailek eta sindikatuk, eta horiek ezabatu zituen diktadura militarrek.

Berrantolaketa Prozesu Nazionala deiturikoa sistema ekonomiko neoliberal bat ezartzeko jarri zen agintean, eta batek garai horretatik gaur egungora arteko hari historiko bat egin dezake. Diktaduraren ondoren, herriaren beharrei ordez kapitalaren interesei eran-

tzun dien demokrazia egon da agintean, eta Mileik egitura hori finkatu du.

Nola ezarri ziren baldintzak 2023ko hauteskundeetan Mileiren garaipena eragiteko?

Kapitalaren interesei erantzuten zien demokrazia horri ez erantzuteak eskuineko agintariak indartzea eragin zuen. Hain zuzen, herrien erresistentzia arintzen denean hazten da eskuina, inoiz ikusi ez diren ezberdintasunak egonkortzen dituen kapitalismo basatiarekin. Diktadura militarra amaitu ondoren, demokrazia neoliberealean egonkortzen joan zen aginte politikoa horrek azkenean sinesgarritasuna galdu zuen, eta hori baliatu zuen Mileik ospea lortzeko, eskuin faxistak krisi garaietan egiten duen bezala.

Gainera, ospe hori benetan gertatzen diren gauzak baliatuta lortzen dute: “kasta politikoa” aipatzen dute behin eta berriz, eta egon badago, baina eurak ere horren parte dira. Etorkizun faltsu batekin ilusioak egiten dituzte, eta horren ondorioak langile klaseak pairatzen ditu. Kapitalak behar zuen estatuaren berregituraketa bortitza 1990eko hamarkadan abiatu zen, eta Mileiren agintaldian amaituko da.

Zein da gaur egun Argentinako Gobernuaren egoera, babes sozialari dagokionez?

Indartsu jarraitzen du, gehienbat agente politikoak babesten duelako. Kongresuan ez du gehiengorik, baina agente politikoak egungo ordena zilegi egiten



duelako lortzen du gehiengoa. Alderdi politikorik gabe iritsi zen Milei gobernura, eta behin boterera helduta ari da osatzen alderdia.

Egia da erresistentzia dagoela atzetan ari dela azken aldian, are gehiago Libra kriptodiruaren iruzurrarekin. Ez iruzurrarengatik, baizik eta Mileik galdu duen sinesgarritasunarengatik. Halere, indartsu jarraitzen du oraindik, eta asko dago borrokatzeko. Horretan berebiziko garrantzia izan dute martxoaren 12ko jubilatuen protestek.

Hain zuzen, nola eragin diote Mileik duen babesari Libra kriptodiruaren iruzurrak eta jubilatuen istiluek?

Jubilatuen protestek inflexio puntu bat suposatu dute Mileiren gobernuarentzat, horren aurkako erresistentzia indartsuena erakusten ari den sektorea baita egun Argentinan. Posizio zail batean jarri du presidentea, eta ikusteko dago ea hurrengo egunetan istiluak areagotuko diren.

Babesari dagokionez, inkestek denetarik diote, baina gehienak ados daukete gauza batean: jaitsi egin dela. Ez da jaitsi, ordea, jaitsi beharko litzatekeen neurrian. Mileiren sinesgarritasuna kalte du kriptodiruaren kasuak, eta orain tentuz jarraitu beharko dituzte AEBetan

“ ”

Kapitalak behar zuen estatuaren berregituraketa bortitza 1990eko hamarkadan abiatu zen, eta Mileiren agintaldian amaituko da

haren aurka irekiko dituzten ikerketak eta auziak. Horrekin batera, Mileiren arrebak, Karina Mileik, influentzia-trafikoagatik jaso duen salaketak ere zeresana eman du.

Hitzaldian adierazi duzu Argentina “hainbat identitate batura” dela. Identitate horietako bat da maputxe herria. Haien aurkako errepresioa areagotu da?

Mileik, mundu osoko eskuin muturreko agintariek bezala, bere aurkariak ezartzen ditu agintera heldu bezain laster. Argentinaren kasuan, aurreko gobernuaren plan sozialak jasotzen zituzten

pertsonak ziren lehenbizi, eta, ondoren, herri maputxea heldu zen. Segurtasun ministro Patricia Bullrichen bitartez, herri maputxea terrorista dela planteatu du Argentinako Gobernuak, eta azken urteetan maputxeek berreskuratu dituzten lur guztietatik desalojatu egin dituzte botere judizialaren konplizitatearekin.

Lur horietan 30 urte baino gehiago daramatzaten familiak kanporatzen ari da gobernuak, eta azken urteetan emandako sei desalojorik handienak gauzatu ditu berriki. Faktore garrantzitsu bat dago maputxe herriaren gatazkarekin: oztopo bat dira meatzaritza arloko eta arlo turistikoko multinazionalen proiektuentzako. Maputxeen aurkako diskurtsoa ere indarra hartzen joan da azken urteetan, Mileik berak zabaldua-ko gezurren harira.

Duela gutxi, Argentinako Abokatuen Gremiotik gaitzetsi zenuten Maputxeen Antzinako Erresistentzia taldea herrialdeko antolakunde terroristen zerrendan sartu izana.

Argentinako Gobernuak Lege Antiterroristarekin zera egiten du: etsai bat ezarri eta hura etsai izate hutsagatik epaitu, eta ez etsai horrek egin dituen ekintzenegatik. Hori ari da gertatzen maputxeekin



ez soilik Argentinan, baita Latinoamerikako beste hainbat herrialdeetan ere. Aurretik zegoen legedia burgesa jada ez da aplikatzen zenbait kontutan, maputxeen aurkako errepresio judizialean, esate baterako.

Aipatu duzu Argentinan desmobilizazioa areagotu dela azken urteetan. Uste duzu jubilatuen protesten harira oposizioak Mileiren aurkako mobilizazio ziklo bat abiatuko duela?

Herrialdeko sektoreen batek kale mailako protestak pizten ditueneko, beldurra izaten dugu oposizioak ez ditzan mobilizazioak kanalizatu eta instituzionalizatu. Itxaropena dugu orain kaleak hartzen hasi den jubilatuen sektoreak sua pizten jarraituko duela. Argentinako langileen bi zentral handienek ere –Argentinako Langileen Zentral Autonomoa (CTA-A) eta Langileen Argentinako Zentrala (CTA-T)– iragarri dute mobilizazioak antolatuko dituztela aurrerantzean, eta espero dugu ez dituztela protestak instituzionalizatuko.

“ ”

Herri maputxea terrorista dela planteatu du Argentinako Gobernuak, eta azken urteetan maputxeek berreskuratu dituzten lur guztietatik desalojatu egin dituzte

Azken egunetako istiluen irudiak eta bideoak ikusita, ordea, nabaria da gobernuaren aurkako protestak kualitatiboki hazi egin direla: unibertsitateko ikasleek egindakoak edota Mileik Davosko Foroan (Suitza) egin zituen adierazpenengatik egondako mobilizazioak masiboak izan baziren ere, antzeman da errebeldia hazi egin dela herrialdean, hau da, herri oso bat bultzaka ari dela.

Esan duzu hiru hamarkaden ondoren Argentinan sozialismoaz hitz egin daitekeela gaur egun. Zergatik? Zein rol jokatzeko du internazionalismoak? Gaur egungo kapitalismo mota hau bere mugara iritsi da, beraz, berebiziko ga-



CLARIN



AP

Erretiratuek mobilizazio handiak egin dituzte eta Mileik errepresioarekin erantzun die gogor.

rantzia duen garai batean gaude. Kapitalismo hau esaten dut, beste garai batzuetan ikusi dugun bezala, kapitalak bere burua birmolda baitezake. Baina gaur egun bizi dugun egoerak, sistemarekin apurtzea ezinbestekoa dela pentsatzera behartzen zaitu; azken batean, duela urte batzuk pentsa zenezakeen ongizate estatu baten inguruan, kapitalismoak ekar zitzakeen onuren inguruan... Baina gaur egun, ez.

Ez naiz gogoratzen zein egilek, baina esaldi ospetsu batek honako hau esaten du: “Ezin duzu eraiki ospitale bat kartzela baten eraikinean. Kartzela suntsitu behar duzu ospitalea eraikitzeko”. Orain dugu aukera sistema honekin apurtzeko, horretara bideratu behar dugu gure lan

mitantea. Lan horretan internazionalismoak berebiziko garrantzia du, hain globalizatua eta monopolistikoa den kapitalismo batean indar internazionala eraiki behar baita, nazionalki antolatzea ez baita nahikoa, Venezuelan edota Kuban ikusi den bezala.

Nola egingo die aurre Mileik Argentinan urrian egitekoak diren agintaldi erdiko hauteskundeei?

Uste dut orain arte eduki duen babes mantenduko duela. Ez da berdina izango, noski, azken asteetan eduki dituen gatazkengatik. Baina, zoritxarrez, Argentinan oraindik ez da eraiki egungo sistema neoliberalari aurre egingo dion alternatibarik. ●

RESAKO AZTARNATEGIA ANDOSILLAN

Ebroko muga zaharraren lorratzetan

Nafarroako Erriberako Andosilla herrian, sorpresa ugari ematen ari den indusketa arkeologikoa egiten ari dira Aranzadiko arkeologoak eta herritar boluntario taldeak. Resako aztarnategian orain arte oso ezezaguna zaigun Goi Erdi Aroko gizarteak hobeto ulertzeko aztarnak aurkitu dituzte, besteak beste. Eta Iruñeko Erresumak hegoaldeko bere mugak nola kontrolatzen zituen ere jakin dezakegu horiek aztertuta, galdera berriak zabaltzearekin batera.

 **JOSU NARBARTE HERNANDEZ**

Ebroren meandroko lautadaren eta igeltsu gorri-grisez osatutako amildegiaren arteko muino txiki batean kokatzen da Resako aztarnategia.



Paissaia ikusgarria da Erriberako bazter honetan. Sartaguda herria bizkarrean utzita, Ebro ibaiak meandro zabalak marrazten ditu gure eskuinean. Kanal-sare trinko batek ureztatutako *huerta* zabalak-islamiar jatorriko baratze-sail ureztatuak, hain zuzen- hartzen ditu inguruko lautadak: fruta-arbola sailak, negutegiak eta esparrago plantazioak begia galtzen deneraino. Zuhaitz-lerro batek markatzen du ibaia nondik nora doan; beste aldean, hemen esaten duten gisan, *Gaztela*. Gure ezkerrean, aldiz, igeltsu gorri-grisez osatutako amildegia erraldoi batek zaintzen du bidea, hai-zeak eta urak eragindako higaduraren pean etengabeko aldaketan.

Amildegiairen eta lautadaren artean, muino txiki batek ematen du arreta. Hegoaldera begira, ikuspegi bikaina du inguru osoaren gainean, eta bizkarrean amildegia babesten du. Aspaldi handian artzainak eta ehiztariak baino ez dira ibili bertan baina, 2018tik hona, joan-etorriak nabarmen ugartu dira: herritarrak, unibertsitateko ikasleak eta Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoak maiz ikus daitezke bertan lanean, hauts artean horma zaharren arrastoak garbitzen. Resako aztarnategi arkeologikoan gaude.

HARRIAK, HEZURRAK ETA ARDOA

Resa izena ez da arrotza Andosillan eta inguruko herrietan. Eskualdean oso ohikoak dira Resa eta Resano abizenak. Gainera, oso presente dago Ebro inguruko toponimian ere: ibaiertzeko erriberei *Soto de Resa* deitzen diete, eta amildegien gainean kokatutako bazkalekuei, aldiz, *Val de Resa*. Hala, bizilagunen artean gauza jakina izan da inguru horretan desagertutako herri bat zegoela, bere kokapen zehatza, neurria eta izaera misterio bat izan arren.

Memoria hori berreskuratzeko asmoz, Andosillako Udalak eta Aranzadik 2018an abiatu zituzten miaketa arkeologikoak, Juantxo Agirre Mauleonen zuzendaritzapean. Berandu gabe, uste baino historia konplexuagoa atera zuten argitara: Burdin Aroko arrastoak, erromatar *villa* aberats baten aurriak, III. mendean gertatutako krisi klimatiko baten zantzuak... baina, zalantzarik gabe, Erdi Arokoak dira Resak orain arte eman dituen aztarnarik adierazgarrienak.

Aztarnategiairen erdigunean neurri handiko eliza baten arrastoak agertu dira. Igeltsuz eginda dago, eta higadurak

lkerketa arkeologikoaren emaitzek lagunduko digute aztertzen Iruñeko erregeek nola berrantolatu zuten lurraldea X. mendean musulmanei konkistatu ostean

gogor eragin dio; baina, hala ere, oraindik nabarmena da bere garaian eraikin monumentalak izan zela, urrunetik ikus teko pentsatua. Eraikuntza estiloak argi erakusten du Nafarroan erromanikoa zabaldu baino lehenagokoa dela. Lauki-zuzen-itxurako planta dauka, eta sarrera nagusia hegoaldean. Eroritako horma-zatien azpian, hainbat zutabe eta arku batzuen dobelak agertu dira, barrualdea luzetarako nabeetan banatuta zegoen seinale. Gainera, ekialdeko partean presbiterio baten, absidearen eta aldarearen arrastoak ere agertu dira. Elizan erritu mozarabiarra praktikatzeko zela erakusten digu horrek -XI. mendean Aita Santuen autoritatea indartzean zabaldu zen erritu erromatarren aurrekoa-, eta hori bat dator erradiokarbono bidez lortutako datazioekin: eraikina X.-XI. mendeetan erabili zen nagusiki.

Eliza dagoen tokian hilerria egon ohi da, eta Resa ez da salbuespena: ipar hormaren kontra harritzko bi kutxa agertu dira bata bestearen gainean. Azpikoan bizpahiru urteko haurtxo baten arrastoak zeuden; gainera, aldiz, emakume heldu batenak. Momentuz, misterioa da haien artean familia-harremanik egon ote zen.

Baina Resako nekropoliak askoz ere mu zabalagoa hartzen zuen eta, orain arte, 40 hilobitrik gora identifikatu eta 13 industu dituzte; guztiak erritu kristauaren arabera ehortzi zituzten. Egingdako datazioek sorpresa eman dute: modernoak XII. mendekoak dira -elizaren garai bertsukoak-, baina zaharrenak VI. menderaino doaz, eta garai horretako datu arkeologikoak oso urriak dira Nafarroan. Aurkikuntza garrantzitsua da, beraz, Goi Erdi Aroko gizarteak hobeto ezagutzen hasteko.

Elizatik metro gutxira ardo egiteko lako baten arrastoak ere agertu dira. Bi kubeta handi ditu mahatsa zapaltzeko, eta bertatik tutu bat abiatzen da, muztioa depositu batera eramateko. Egungo ikuspegitik harrigarria gerta litekeen arren, Erdi Aroan ohikoa zen holakoak elizen inguruan egotea. Eraikina jabe pribatu baten esku egon zitekeen, eta horrek mota desberdinetako ondasunak bereganatzeko eskubidea ematen zion (soroak, mahastiak, errotak...), noski, etekin ekonomikoa ateratzeko ere bai.

KONKISTA OSTEKO PAISAIA BAT

Indusketari esker badakigu, duela mila urte Andosillako Resako kokalekua garrantzitsua zela. Mende horiek hedapen garaia izan zirela Iruñeko Erresumarentzat, Ebro inguruan hainbat lurralde konkistatu baitzizkien musulmanei. Resa izena bera garai horretan agertzen da lehen aldiz idatzita, Antso I. erregeak 908an egindako konkisten artean. Ondorengo urteetan, herri hori mugako gotorleku estrategiko bilakatuko zen -*tenentzia* baten egoitza izan zen, gaztelu eta guzti-, 1045.ean Calahorra eta 1119an Tuteran konkistatu arte behintzat. Hortaz, ikerketa arkeologikoaren emaitzak oso baliotsuak dira konkista osteko garaian Iruñeko erregeek lurraldea nola berrantolatu zuten aztertzeko.

Dokumentu zaharrei esker badakigu Iruñeko erregeek interes ekonomikoak izan zituztela Resan, eta interes horiek elizen inguruan artikulatu zituztela. Antso IV. eta Plazentzia errege-erreginak aurkituko ditugu Santa Mariari eskainitako eliza baten jabe, "Ebro ibai ertzean, Resako herri gotorren artean" kokatua; 1071. urtean Donemiliagako monjeei utzi zioten eliza, eta harekin batera hainbat mahasti eta baratze, beste ondasun batzuen artean.

Ziur aski, dokumentu horretan aipatutako eliza da arkeologoen industu dutena. Baina, nekropolia askoz ere zaharra dela ikusita, baliteke eliza hori hutsetik eraiki ez izana. Izan ere, kokapen horretan lehenagotik ere tenplu bat egon bazen, baliteke 908ko konkistaren ondoren Iruñeko erregeek hura berrekitzea sustatu izana, botere berriaren sinbolo gisa. Eta ez litzateke harrigarria izango eraikin berria monarkia jabetzara pasatzea, konkistatutako lurraldean ondasun ekonomikoak -hots, testuak aipatzen dituen mahastiak eta baratzeak- kontrolpean hartzeko eta haien etekinak kudeatzeko.

Ikerketa, auzolana eta formazioa

Resako ikerketa arkeologikoa auzolanean gauzatu da, Aranzadik ohikoa duen filosofiari jarraiki. Haiekin batera, hasieratik boluntario-talde bat aritu da landa-lanean; gehienak Andosillatik datoz, baina badira Sartagudakoak eta San Adriangoak ere. Manex Arrastoa Mendizabal indusketako koordinatzaileak azaldu duenez, herritarrek lehen eskutik parte har dezakete ikerketa prozesuan, eta ikerlarietokiko ezagutza, kezkak eta lehen-tasunak jaso ahal izan dituzte ondareari bere balio osoa emateko.

Maricer Itarte Sadaba da boluntario-taldearen koordinatzaileetako bat. Kultur ondarea berreskuratzeko ez ezik, herritarren arteko harremanak indartzeko tresna gisa ere ikusten du auzolana. Hala, parte-hartzaileen artean dinamika polita sortu dela azaldu du; asko urtero etorritzen dira, eta egindako lana herritarren artean zabaltzen laguntzen dute gero.

2022. urteaz geroztik, auzolandegian unibertsitateko Historia eta Ar-



keologia ikasleak ere aritu izan dira; parte-hartze horrek formazio praktikoa eskaintzen die. Kasu honetan ere bada urtero errepikatu duenik, eta, aztarnategia ezagutu ahala, ardurak hartzen joateko aukera izan dute, edo aztarnategiko materialak beren ikaske-

ta-prozesuan txertatzeko Gradu edota Master Amaierako Lanen bidez.

Arkeologia, beraz, ez da ikerketa-kontu soila. Balio sozial bat ere badu herrigintzari lotuta; gizartearentzako esanahiak jostea baita kultur ondarearen funtzioa, ekintza kolektiboaren bidez.

BI ERRESUMA, MUGA BAT

Resaren historia ez da, baina, hor akitzen. Antso IV. erregea dohaintza egin eta urte gutxira hil zuten, Peñalengo amildegian, erresumako nobleziaren azpijoko baten ondorioz. Berehala, Gaztelako eta Aragoiko osteek Iruñeko erresuma inbaditu

eta banatu zuten, eta ez zuen autonomia berreskuratu 1134ra arte. Ordutik, Iruñeko eta Gaztelako erresumen arteko muga gelditu zen Resa, eta behin eta berririo eskualdatu zuten; 1221ean gelditu zen behin betiko Nafarroaren esku, muga Ebron egonkortuta.

Ardoa egiteko
lakoaren arrastoak
Resko elizatik metro
gutxira azaldu dira.



1246an, Donemiliagako monjeek Calahorrako katedralaren esku utzi zuten Santa Maria eliza, bere jabetza guztiekin. Ordurako, badirudi Resa gainbeheran sartuta zegoela, antzinako muga-funtzioa galdua. 1350erako, gazteluzaina baino ez zen bizi bertan; eta, handik gutxira, Andosillako eta Cárcarreko herritarrek akordioa sinatu zuten herriko lurak banatu eta bazkaleku gisa erabiltzeko.

Resako aztarnategiak, beraz, sorpresa gehiago eman ditzake etorkizunean. Arkeologoei lanean jarraitzeko asmoa dute, galdera asko erantzun gabe daudelako oraindik. Non zegoen kokatuta Erdi Aroko herrigunea? Zer ezaugarri zituen? Nola bizi ziren bertako herritarrak? Nolakoa zen gaztelua eta zein zen bere menpeko lurraldea? Ebroren ibilbidea aldatu da denboran zehar? Zer ondorio izan ditu horrek erregistro arkeologikoaren kontserbazioan? Ikerketak baino ez ditu emango galdera horien erantzunak. Eta, ondo bidean, galdera berriak ere sortuko ditu. ●



Kamiseta **22 €**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

'GALDERA BASATIAK' PODCASTA



Iñigo Martínez aurkezlea eta Malen Etxebeste gonbidatua podcastaren bigarren saioan.

Filosofatu dezagun umeekin eta umetatik

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA


Orain hilabete batzuk atentzioa eman zidan inguruko herri batean antolatuta zegoen haurrentzako tertulia filosofikoaren kartelak. Eta hara non, Interneteko bilatzailean sartzen duzun oinetako edo liburuaren ondoren, hurrengo egunetan jasotzen dituzun antzeko produktuen gomendioak bezala, iritsi zaidan ARGIAko podcast berri baten albisteak. Haurtzaroa eta filosofia oinarri. Iñigo Martínez Peña izango du gidari saioak eta zortzi emanaldi aurreikusten dira, apirilaren 6an hasita. *Galdera basatiak* du izena podcastak.

“Gizartea pentsatzeko eta etorkizunari begiratzeko modu bat izan liteke haurtzaroa abiapuntu hartuta galdera filosofikoetan murgiltzea”, azaldu digu Martínezek. Ordu-erdi inguruko saioak izango dira eta gaian adituak diren pertsonen egingo dizkie elkarrizketak.

“Lehenengo saioa orokorragoa izango da, haurtzaroaz nolabaiteko kartografia bat egin nahian haurtzaroaren inguruko egungo estereotipoetan oinarrituta: nola hurbiltzen garen fase honetara, ze puntura arte daukagun idealizatuta edo ez, umeak babestuegi dauzkagun edo ez...”, esan digu. Hurrengo saio bakoitzean gonbidatu bat izango da eta galdera zabal bezain zehatz bat egingo zaio. Adibidez: Zer da maitasuna? Zer da heriotza? Eta errealitatea, zer da?

Jakin-min bezalako elkarteak hasiak dira haurrekin galdera hauen inguruan hizketan (uste dut horrelako tailerren baten ingurukoa zela ni liluratu ninduen kartela) eta saio horietan umeek emandako erantzunak oinarri hartuko dituzte podcast honetan, gero gaia bera gizarte osora ekartzeko. Beraz, norentzat izan litezkeen interesgarri saio horiek? “Seguraski gizartean edonorentzat, baina

Sarean eduki guztiak irekita zuri esker



Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

“”

Nire egunerokotasunarekin lotura handiagoa ikusten diet berriei, baita informatzeko moduei ere. Beste leku askotan ezin ditut euskaraz irakurri.

Arraia-Maeztutik Mirenek

“”

ARGIAk kazetaritza independentean eta Bizi Baratzean, agroekologian eta elikadura burujabetzan egiten duen lana ezinbestekoa delako gaur egun Euskal Herrian.

Berriztik Asierrek

bereziki, nik uste, hezkuntzaren bueltan dabilenarentzat, guraso elkarteentzat... ikusita hezkuntzan pantailen eta arretaren inguruko kezka geroz eta nabaria-goa dela”, erantzun du.


GONBIDATUAK

Maddi Nazabal ariko da heriotzaz, Iza-ro Toledo maitasunaz, Imanol Alvarez izango da errealitateaz mintzatzeko gonbidatua eta Malen Etxebeste adituko dugu, jada heldu, tailer hauetan parte hartu zuen haurren paperetik.

Argia.eus-en zintzilikatuko da, apirilaren 6tik aurrera, igande arratsaldetan eta etxe honetako sare eta plataformetan zabalduko da.

Ni aurikularren bila noa! ●

Gizonak frontera, emakumeak zubira



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Londres, 1944. Dorothy izeneko emakume bati argazkiak atera zizkieten Waterloo zubian soldatze lanak egiten ari zela. Dorothyri buruz izena beste daturik ez daukagu, baina duela hamar urte arte hori ere ez genekien. Argazki sorta 2015ean topatu zuen Christine Wall historialariak.

Lehenago, 2005ean, Karen Livesey eta Jo Wiser zinemagileak testigantzak biltzen ahalegindu ziren dokumental batean, bai baitzekiten Tamesis ibaia nabigatzen jarduten zutenek *the ladies' bridge* (andereen zubia) deitzen ziote-la zubiari. Baina zientzia museo batean ahaztuta zeuden argazki horiek frogatu zuten Bigarren Mundu Gerra betean Dorothy eta beste ehunka emakume aritu zirela Waterloo zubia eraikitzen.

Strand zubia (hori zuen jatorrizko izena) 1809an inauguratu zuten, baina gudu ezagunean lortutako garaipenaren omenez, Waterloo izena ipini zioten 1816an. XIX. mendean zehar, ibaiaren goraldiek egiturari kalte handiak eragin zizkieten. Behin behineko altzairuzko egitura paralelo bat jarri zuten, ondorioz. Eta 1937an, zubi zaharra bota eta Giles Gilbert Scott arkitektoak diseinatutako proiektu berria martxan jartzea erabaki zuten.

1939an, gerra piztu zenean, zubiko 350 langile –denak gizonezkoak– frontera deitu zituzten eta eraikitze lanak nabarmen mantsotu ziren. 1940an, alemaniarrek hiria bonbardatzen zutela, lanak guztiz etetea ere pentsatu zuten. Baina



LONDON NATIONAL SCIENCE AND MEDIA MUSEUM

Christine Wall historialariak 2015ean aurkitutako argazkietako bat.

erresistentzia keinu moduan, lanekin nola edo hala aurrera egitea erabaki zuten. Ehunka emakume kontratatu zituzten horretarako, soilik aldi baterako kontratuak eskainita eta, jakina, gizonezko baina askoz gutxiago ordainduta.

Wallen ustez, hainbat arrazoi daude hamarkadetakoa ahanztura bultzatu zutenak. Batetik, horrelakoetan emakumeek idatzitako egunkari pertsonalak funtsezko iturriak izan ohi dira, baina kasu honetan ez da horrelakorik aurkitu, historialariaren ustez, lanaldi luze nekagarriek ez zietelako idazteko denborarik eta gogorik uzten. Bestetik, zubia eraikitzeaz

arduratu zen eraikuntza enpresa likidatu egin zuten, eta prozesuan kontratu eta txosten gehienak galdu ziren.

Baina oinarrian beste arrazoi bat ere badago: emakume haiei merezitako aitortza egiteko asmorik ez zuten sekula izan. 1945ean, zubiaren inaugurazioan, Herbert Morrison barne ministroak hauxe esan zuen. "Waterloo zubia eraiki duten gizonak zorioneakoak dira. Badakite, haien izenak ahaztu arren, egindako lana Londresen erabilgarri eta harrotasun iturri izango dela datozen belaundaldietan". Zorigaiztoko emakumeak ez zituen aipatu ere egin. ●



A. KANTA

Lineal A idazkunik luzeena

Lineal A duela 4.800-4.500 urte erabilitako idazkera minoikoa da. Berriki, Kretako Knossos jauregi ezagunean, bolizko objektu berezi bat aurkitu dute, ziurrenik zeremonia-zetro gisa erabiliko zutena. Objektuak bi idazkun ditu; bata, kirtenean, laburragoa da eta aurkitutako lineal A idazkerazko testu administratibo gehienak bezala zeinu numerikoak

dauzkala ondorioztatu dute adituek. Bestea berezia da, batetik, zeinu numerikorik ez duelako eta orain arte horrelako Lineal A idazkerako horrelako beste testurik ez delako aurkitu. Bestalde, lineal A idazkunik luzeena ere bada –119 zeinu hieroglifiko ditu–. Baina oraindik idazkera mota hau deszifratzeko gai ez garenez, ez dakigu zer esaten duen. ●

SASOITU

APIRILA, ZIKLOAREN HASIERA



**AMAIA DIAZ DE
MONASTERIOGUREN OSINAGA**
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

Udaberrian orain dela egun gutxi sartu gara eta intxaurrondoa dut maisu. Lasai sentitzen dut, konfiantzaz, bere prozesuan, ziklo berria hasten. Plan eta ohitura berriak hartu ditut apirilean, sasoiu naiz, bizitzan proiektu berriei heltzeko konfiantzaz, indarrez, sormen eta ilusioz beteta nago. Neguak on egin dit. Lasaituta, bizitasunarekin, energiaz aurkitzen naiz.

Jaten eta edaten duguna zaindu behar dugu. Urak garrantzia handia du, barazki kremak, hostodun entsaladak, fruta eta lekaleak jatea gomendatzen dut. Garrai ederra dator, argi orduak gehitzen doaz eta horrek gorputzean, serotoninan, energia mailan, animoan eta lo-zikloan eragina du.

ILARRAK

Perlak bezain distiratsu, zeta bezain leun eta zapore gozoduna. Lekale interesgarria da eta dibertigarria, udaberriko plater osasuntsuak eta menu orekatuak prestatzeko. Ilarrak lekale freskoak dira, gordinik har daitezkeenak, eta bitamina, entzima eta antioxidatzaile ugari dituzte.

Zertan laguntzen gaituzte? Proteina ugarituta, garapena eta birsorkuntza bultzatzen dute. Haurdunaldi, haurtzaro eta nerabezaro garaietan, eta pertsona helduetan zelulak berritzeko aproposak dira. Patata edo arrozarekin nahastea gomendatzen dut, proteina gehiago indartzeko. Bestalde, anemia prebenitzen dute. Burdina eta C bitaminan aberatsak dira eta azido foliko ugari dute. Gainera, ilarra karbohidrato gehien dituen lekaleetako bat da, zehazki azukre disolbagarriena. Hori gertatzen da, batez ere, bildu berri diren ilar freskoetan, denborarekin azukre disolbagarriak al-



midoi bihurtzen baitira. Zuntz disolbagarri ugari dutenez, ilarrek kolesterola murrizten laguntzen dute eta odoleko azukre-maila doitzen dute. Bestalde, zuntz disolbaezinek idorreriaren aurka egiten dute. Udaberriko asteniari aurre egiten laguntzen dute, oso susperrak direlako eta aldarte positiboagoa izaten laguntzen dutelako, bitamina b1 ean aberatsak izanik. Beste lekaleekin alderatuta, ilarrek ez dute digestio astunik eragiten.

Nola jan eta nola prestatu? Gordinik; barazki-menestran; lurrunetan egosita (guarnizio gisa edo entsaladan); urdaiazpiko eta arrautzarekin platera osatuta; zopan edo kremak.

BABA HANDIAK

Leka gogor eta haritsu ez dugu jaten, horrek babestu eta gorde egiten du baba. Aleak itxura obalatua eta berdea du, haragi samurra eta oso zaporetsua. Freskoan kontsumitzeko garaia udaberria da. Ezaugarri nutrizionaletan ilarraren antzekotasun handia du. Etxeratzen duzunean, gorde hozkailuan, paperezko edo plastikozko poltsa zulatu batean, gehienez hiru egunez. Egokiena da erosten ditugun egunean bertan zuritu eta prestatzea, egunean bertan jateko edo hozkailuan edo izozkailuan gordetzeko.

Zertan laguntzen gaitu? Proteina eta zuntzetan aberatsa da, asegarria, arina, eta bitamina eta mineralen aberatsa. Oso elikagarriak dira eta, era berean, lekale lehorra baino digestiboagoa. Beste abantailetakoa bat, prestatzeko eskaintzen duten moldakortasuna da, zuzenean gordinik hartzeko ere egokiak baitira, ordu artean, mokadu moduan. Bihotzaren laguna da, bihotz-hodien osasunerako ona. Lekalea bigarren plater modura gomendagarria da. Potasio-eduki handia du eta arteria tentsioari laguntzen dio. Kaltzioan aberatsa da, hezurdurarentzat ona. Ongi mastekatu behar da, digestio astunik ez izateko, eta zuntz asko izateagatik sor daitezkeen haizeak saihesteko. Arrazoi beragatik, ez da gomendagarria hesteetako arazoak, gastritis edo beherakoa dutenentzat. Azala kentzea komeni da, digestio hobeak edukitzeko.

Prestatzeko moduak: patatekin gisatuta, tortillan, entsaladan, hummusean... ●

A ZE FAUNA!

UDABERRIAN SAKURA LOREAK
ETA ITSAS-TOMATEAK

NAGORE ZALDUA MENDIZABAL
ARANZADI ELKARTEKO KIDEA

Itsasoan badira landareen itxura izan arren animalia harrapari diren izaki eder batzuk: anemonak. Kantauri itsasoan hainbat anemona espezie ditugun arren, bada bat, guztien artean bereziki erraz atzematuko aukera eskaintzen diguna: itsas-tomatea. Itxuraz kaltebera dirudien arren, aurkako baldintzetara egokitzeko gaitasun ikaragarria garatu du, bizi den ingurunean, itsas-mareen tarteak ezartzen dizkion baldintzei aurre egiteko moldatu behar izan baita. Marmoken ez hain urruneko ahaide (irudikatu buruz behera jarritako marmoka, arroka batera atxikita), apurtutako nahiz galdutako gorputzaren zatia birsortzeko ahalmena duen izaki bitxia dugu honakoa.

Udaberria urtaro aproposa da naturari begira jartzeko, lurra neguko loalditik esnatzen ikusteko, usaintzeko... Japonian *hanami* deritzon ohitura edo kultura sustraitua dago, *sakura* (gereziendoaren loreak) eskaintzen dituen ikuspegiez gozatzeari esaten zaiona, alegia. Gure inguruan halako gereziendorik izan ezean, jakin ingurune kresaltsuagoetan bestelako *sakura* batzuk ere topatu ditzakegula; begiratu erne harkaitz arte batean, ur gaziko putzuren batean, Itzurun, Laga, Sopena, Jaizkibel edo euskal kostaldeko beste txokoren batean, oso posible baita bertan itsas-tomatea aurkitzea. Itsasgoran nahiz itsasbeheran, itsas-tomate gorri mami-tua irekitzen edo ixten ikusi ahal izango duzu. Marearteko eremuko argitasun, haize, olatuen indar, tenperatura, gazitasun, eta abar luze baten ondorioz, bertan bizi diren izakiek bizi-baldintza oso aldakorrei aurre egin behar diete, kasu batzuetan muturrekoak ere izan daitezkeenak. Itsasgoran tenperatura, gazitasuna eta oxigenoa egonkor mantentzen



NATALIE S. / WIKIMEDIA CC A-5-A-4.0

ITSAS-TOMATEA
Actinia equina

TALDEA: Ornogabea / Anemona (aktinidiarioa).

NEURRIA: 5-7 cm-ko altuera eta 6 cm-ko diametroa.

NON BIZI DA? Marearteko eta ur azpiko sakonera txikiko (<20 m) eremuetan, arrokei eta pitzadurei itsatsita. Urpean nahiz uretatik kanpo iraun dezake itsasbeheran.

ZER JATEN DU? Arrain txikiak, krustazeoak eta moluskuak harrapatzen ditu, garroez baliatuta.

BITXIKERIA: Pozoia du: toxina indartsuak ditu bere burua defendatzeko eta bere harrapakinak mugiezin utzita lixeritzeko. Gizakioi, ukituz gero, sumindura eta deserosotasuna eragin diezazkiguke.

BABES MAILA: "Kezka Txikiko" gisa sailkatua.

diren bitartean, itsasbeherak baldintza gogorrak dakartza. Izan ere, eguraldia eguzkitsua denean, putzuetako tenperatura eta gazitasuna asko igotzen dira; eguraldi euritsuak bestalde, kontrako efektua sor dezake. Bada, halako eremuetan bizi da itsas-tomatea.

5 eta 7 cm bitarteko altuera eta 6 cm-ko diametroarekin, kolore gorri-ka izan ohi du, berdea, marroia edo laranja ere izan badaiteke ere. Hala, bi modutan topatu dezakegu: batetik, beso guztiak gorputz-enbor barruan gordeak dituela, bere burua gotortu eta, izen arruntak dioen bezala, tomate distiratsu baten itxurarekin; bestetik, modu irekian, sei zirkulutan ahoa inguratzen duten ia 200 garro gorputzetik at dituela, lore sorta kaltegabearen itxuraz, baina harrapakinak ehizatzeneko erne. Itsas-tomateen garroen oinarrian pinporta urdin distiratsu batzuk ere ikus daitezke, gorputz-enborraren kanpo-ertzean, garatxoak diruditen poltsa urtsuak bailiran. Egitura hauek bere bizileku den ur-putzuan sartzen diren animalien aurkako defentsan erabiliko ditu. Guk ere kontuz ibili beharra dugu, azalean sumindura sor diezaguke-eta.

Udaberriko Japoniako gereziendoen edertasuna gutxietsi gabe, bertatik bertara naturak eskaintzen dizkigun bestelako loraldiez ere gozatu dezakegu; kasu honetan, marearteko eremuan. Bertaratu, aztertu, ikusi eta ikasi. Ingurune-baldintzen aldaketak itsas-tomatearentzat atzera ezin ez diren bitartean, negutegi nahiz baratzetako tomatez gain, gure marearteko itsas-ekosistemako izaki ezezagun bezain bitxi hau ere izango dugu. Gogoratu, itxuraz hala bada ere, ez dela landarea, marea igotzen den bakoitzean loratzen den animalia baizik. ●

OHEA BEROTZEAREN TEKNIKA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Ohe beroan edo hotzean egiten da hobeto lo? Nik zalantzarik ez daukat: hotzean. Landare jaioberriek bero punttu bat nahiago dute, ordea. Udaberriko ekinozio garai hau aproposa da udako eta udazkeneko mokadu goxoak emango dizkiguten landareen haziak ereiteko.

Hazitegian edo mintegian haziak ereiteko ohea egin behar da. Aziendari barruetan azpiak egiten zaizkion bezala, haziak ohea egin behar zaie. Gure ohe eta inaurkinak, etzauntzak dira, hazienak ez, hazienak hazkuntzak dira.

Haziak badaki ernatu eta landare berriari bide eman behar diola. Eguna luzatuta dago eta lurra epeltzen hasita. Hazitegietan hori areagotu egiten da: argi artifizialarekin osatzen da egun argia eta jaiotzeko duen ohea berotu egiten da. Udaberria bat-batean etorri balitzaio bezala. Indarrez eta gogo biziz sortuko ditu lehenik sustraia, ondo errotzeko, eta gero txortena, lehen hostoak zabaldu eta janaria sortzen hasteko. Hortik atzera berjabe izango da; ordura arte haziaren zati handiena den energia erreserba xahutuz biziko da. Horixe dira haziak, landare berri bat emango duen muina eta hari eusteko energia erreserba. Badakigu, haziak jaten baditugu, baba (*Vicia fava*), babarruna (*Phaseolus vulgaris*), hurra (*Corylus avellana*), intxaurra (*Juglans regia*) eta



Simaurtutako lurra patatak hartzeko prest, mango arbola artean.

abar, energia asko gureganatzen dugu, erreserbak pilatuko ditugu txitxietako gantzetan.

Hazitokian haziak hozitzeko ereindako lurra azpitik berotu egiten da, ohe beroa esaten zaio. Berotze hori gaur egun elektrizitatearekin egiten da, baina lehengo erari eusten dionik ere bada: ereiketa ontzian lurraren azpian simaur berri-berria jarri. Simaurraren lehen hartzidurak (mikroorganismoek egiten duten hartzidura aerobioa, oxigenoarekin) beroa askatu eta gainekeo lurra epelduko du, haziak arrapiztuz.

Behorketaren edo behorkundearen simaurra da beroena. Azkar ekiten dio hartzitzeari eta tenperatura altuak harra-

patzen ditu, baita 70°C ere. Gaitasun horrek bide asko ireki dizkio behor-simaurrari. Hazitegietako ohea bezala txanpinoia (*Agaricus bisporus*) ekoizteko inaurkinaren zati handi bat behor-simaurra da.

Patata berria goiz, oso goiz jaso nahi duenak ere badaki: ohea egin behar dio. Patata jarri nahi dugun sailean lurra kendu, bazterrean utzi eta 20-25 zentimetro simaur berria jarri, behorrena bezala behikundearena edo ardi-jendearena ere ona da. Simaurraren gainean hamabost bat zentimetro lur zabaldu, eta hortxe landatu edo erein patata. Aurrez erne eta ernamuinean badago hobe. Zitzu

batean etorriko da, eta zarba loratzen denean lurpean tuberkulu politak dituela esaten ari zaigu, lehen patata goxoak, azal eta guzti jan beharreko gutizia.

Ohe beroa hozberak diren landareei ere egiten zaie. Landatu berritan, eta toki berrira, hotzera, ohitu eta sustraije sendoa osatu arte negua izotzek erre gabe igaro dezaten, inguruan, lur gainean, simaur berria jartzen zaie; horrek sustraiak babestuko ditu, bero-bero, eta berotasun horrek hostoak eta adarrak ere bilduko ditu.

Hori egin behar zaie boladan baino boladagoan izan eta oraintxe landatzen ari diren garrazkiei, ahukateondoei (*Persea americana*) eta mangondoei (*Mangifera indica*) lehen 2-3 urteetan behinik. ●



Bizi Baratzea
Lurrari begiratzen diogunon Orria

eginbizibaratzea.eus

Kide egiteko arrazoiak

"Galdu behar ez litzatekeen herri jakintza garatzeko
eta mantentzeko lan eskerga egiten duelako"

Ibai, Ametzaga-Zuiatik

ERREKAUEK

"ERREKAUEK" ETA "ENKARGUK" ETXEAN JASOTZEKO PROIEKTUA AZPEITIAN ETA AZKOITIAN



GARAZI ZABALETA

Duela lau urte abiatu zuten Azpeitian Enkarguk proiektua, Udalaren, Urkome Landa Garapen Elkartearen eta Azpeitiako eta Gipuzkoako merkataritza txikien elkarten artean. "Orain proiektua bigarren fasera eramán dugu, eta Azkoitian sortu dugu antzeko egitasmoa, bere izenarekin: Errekauek", azaldu du Usoa Etxeberria Aranburu zonaldeko merkataritza elkartearen teknikariak. Helburu bera du egitasmoak bi herrietan: denda txikiei eta bertako azokako ekoizleei bultzada ematea, haien produktuak bezeroei etxean jasotzeko aukera emanez.

KONTSUMO OHITURAK ALDATZEKO ASMOZ

Azpeitiako azoka astearte eta ostiral arratsaldeetan izan arren, ekoizle asko astearte goizetan joaten zirela ikusten zuten proiektuaren bultzatzaileek, eta herritar askok, lanagatik eta ordutegiagatik arazoak zituela goizez erosketak egitera bertaratzen. Azokako ekoizleek gain, dena den, herriko denda txikiek ere egitasmoan parte hartzen dute. "Herri bakoitzean baldintza batzuk daude ezarrita, baina finean, denda txikiak dira proiektuan sartzen direnak, tokiko merkataritza esaten diogun hori, auzoko betiko denda", dio Etxeberriak. Izan ere, erosketak bertako denda txikietan egitera bultzatu nahi ditu herritarrak egitasmoak, haien kontsumo ohituretan eragin nahi du.

Azkoitian proiektua abiatu berria dute, eta momentuz azokako ekoizle bakarrak egin du bat Errekauek proiektuarekin, baina Azpeitian ibilbide luzeagoa izanik, hemeretzi ekoizle dira dagoneko Enkarguk egitasmoan parte har-



tzen dutenak. "Lanketa orokorra egin da merkatariekin eta ekoizleekin, formakuntzak katalogoa egiten ikasteko, digitalizazioan sakontzeko... eta ikerketak ere egiten ari gara, kontsumo ohiturak aztertzeari begira", gehitu du teknikariak. Azkoitian, pixkanaka Azpeitian egin den bidea jorratzea da helburua.

EROSOTASUNAREN BILA

Whatsappeko difusio talde bidez funtzionatzen dute bi proiektuek. "Informazioa bidaltzen dugu hortik, esaterako, ekoizle bakoitzak zein barazki eramane dituen azokara. Formula hori aukeratu dugu erreminta eroso delako, eta ia mundu guztiak erabiltzen duelako", azaldu du teknikariak.

Denden kasuan, momentuz, garrantzitsua da bezeroek aurretik denda eta bertan eskaintzen diren produktuak ezagutzea, eskaerak egin ahal izateko. "Azpeitian denda batzuek katalogoa egin dute, baina ez denek. Hurrengo asmoa APP bat sortzea litzateke, bertan saltoki eta ekoizle guztien katalogoak egoteko, eta hortik erosketak egiteko", azaldu du.

Erosketak online egiteko ordu muga bat dute bezeroek, eta hurrengo egunean bertan jasoko dute saskia etxean edo kontsignan. Langile bana dute kontratatuta bi herrietan, banaketa egiteko. "Zerbitzu azkarra da, eroso, herrikoa eta jasangarria", azpimarratu du Etxeberriak. ●

LIBURUTEGIA DENONTZAT TALDEA

Umeak ez dira ongi etorriak Debako udal liburutegian



2 urtera arteko haurrek galarazita dute Debako haur liburutegian egotea, eta 2-6 urtekoek 16:30-17:30 artean baino ezin dute egon. Hogeitaz horrela funtzionatu duen ageriko diskriminazioa buka dadila eskatzeko ama talde bat elkartu denean, ezetz erantzun die udal gobernuak. Gorago jo dutenean ere, ez diete atea zabaldu: Arartekoak eta Jaurlearitzako Liburutegi Zerbitzuak esan diete ez dutela esku hartuko. "Oso larria da kudeaketa eredu posible gisa planteatzea umeen aurkako diskriminazio garbia dena".

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

ARGIAk elkarrizketa eskatu die baita ere Debako udal gobernuari eta Eusko Jaurlearitzaren Euskadiko Liburutegi Zerbitzuaren buruari, baina bataren eta bestearen ezezkoak jaso ditu bueltan. Herriko hainbat gurasok osatzen duten Liburutegia Denontzat taldeko Itsaso Aramendi Urbietak eta Nahia Eguskizaga Bilbaok kontatu dizkigute Debako Ostolaza udal liburutegian hain ezohikoa den egoeraren nondik norakoak.

Kokatu gaitzazue: nolakoa da eta nola dago antolatuta Debako liburutegia?

Itsaso Aramendi: Espazio berezituak ditu: atea itxita duen espazio bat dago, ikasteko gela edo isilik egotekoa; beste eremu zabal bat, helduen liburutegia,

hainbat mahairekin; eta hirugarren espazio bat, haur eta gazte liburutegia, hormak eta ate propioa dituen. Gainera, liburutegi orokorreko liburuzainaz gain, soilik haur liburutegiaz arduratzen den beste liburuzain bat dago lanean, jardun osoan, goiz eta arratsalde.

2 urtetik beherako umeek ezin dute Debako liburutegian egon. Liburutegia zabalik dagoen zazpi orduetatik, 2-6 urtekoak soilik ordu jakin batean egon daitezke haur liburutegian, 16:30etik 17:30era (hortaz, adibidez, anaia-arreba helduxeagoekin batera ezin dute egon beste orduetan). 15 urtera arte bestelako ordu murrizketak ere badituzte. Non dago arau hori idatzita?

Aramendi: Ordutegia liburutegiko atean eta webgunean dago, baina udalari araudia eskatu genionean, bidali zizkiguten bi dokumentu, haur eta gazte liburutegiko arauari lotuta, eta bertan ez da zehazten adinkako ordutegi murrizketarik. Beraz, praktikan aplikatzen dituzten ordu debekuak ez daude araudian jasota.

Eta zergatik du Debako liburutegiak halako praktika ezohikoa?

Nahia Eguskizaga: Halakorik ez dugu beste inon ezagutzen. Udal gobernutik eman diguten arrazoietakoa bat da hogeitaz urte daramatzatela horrela funtzionatzen (batzuetan apaindu egiten dute esaldia, "hogeitaz urteko esperientziaren ondorio" dela diote), hori bere horretan arrazoi bat bailitzan. Argudiatzen dute




OSTOLAZA
UDAL LIBURUTEGIA

Itsaso Aramendi Urbietta
(ezkerrean) eta Nahia Eguskizaga
Bilbao, Debako Ostolaza udal
liburutegiaren aurrean.

umeeek zarata ateratzen dutela eta liburutegiak eskatzen duen giro lasaia oztopatzen dutela, beste erabiltzaile batzuei molestatzen dietela. Halaxe adierazi digute bileretan.

Publikoki, haurrentzako ordutegi murrizketa argudiatzeko atera zuen oharrean ez zuen zarata aipatu udal gobernuak, baina neurria aldatzeak, alegia haurrei nahi dutenean egoten uzteak, "bizikidetza zaildu" dezakeela dio, "beste erabiltzaile talde batzuengan" eragin dezakeela.

Eguskizaga: Mahai gainean jarri ditugun aterabideen artean, eskatu diegu proba pilotu bat egiteko, ikusteko ea bizikidetza hondatzen den, zeren hogei urtean ez da egon benetako bizikidetzarik, herritar talde bati sarrera mugatzen zaion heinean. Helduen arteko bizikidetza ohitu gaituzte, eta guk ulertzen

Araua jarri beharrean, 'isilik egon behar da, baxu hitz egin behar da', eta horren arabeko ondorioak ezarri, aurretik jarri dute debekua, zarata egin aurretik dute zigorra umeeek



dugu bizikidetza dela ezberdinen arteko elkar-ukipen bat; jakina, bizikidetza bermatzeko arau batzuk egon behar dira, baina araua jarri beharrean, "isilik egon behar da, baxu hitz egin behar da",

eta horren arabeko ondorioak ezarri, aurretik jarri dute debekua, ez dago ondorioak izateko aukerarik ere eta zarata egin aurretik jaso dute zigorra. Gainera, helduek zarata batzuk atera ditzakete (zeren ateratzen ditugu), baina umeeek eginez gero ez da onargarria.

Kasua inguruan aipatu dudanean, jabetu naiz baten batek irudikatua duela haurrak liburutegira doazela jolastera, haur-txoko gisa erabiltzera, euria egiten duenean babesteko aitzakia gisa... eta aldiz helduak liburuak irakurtzera baino ez. Zer esango zenioke hala pentsatzen duenari?

Aramendi: Guk ideia hori jaso dugu udalarengandik. Liburutegian ilustrazio tailer bat antolatzeke baimen bila joan eta erantzun ziguten ez dela ludoteka bat, eta esana dute baita ere umeen li-



Haur txikiak dituzten herriko ama batzuek sortu zuten Liburutegia Denontzat taldea.

burutegia ez dela arratsalde-pasarako lekua. Zeinek erabakitzen du zertara goazen? Helduongan ez dugu begirada hori erabiltzen, helduak doaz irakurtzera, idaztera, baita denbora-pasa ere... eta inork ez die ezer esango. Zerbitzu publiko bat da eta denok erabiltzeko eskubidea izan beharko genuke.

Beste herrietan ere, umeak ume dira, liburutegiei antzerako erabilera ematen zaie... Zer pasatzen da Deban? Debako haurrek zarata gehiago ateratzen dute, ala?

Eguskizaga: Agian liburuazainak desberdinak dira eta hor dago gakoa.

Aramendi: Liburutegiak ulertzeko modu ezberdinak egon daitezke, eta ongi etorriko da lanketa egitea, liburutegiak zer izan beharko lukeen.

Zer ukatzen zaio 0-6 urteko haurrari, liburutegian denbora gehiago igarotzea galarazten zaionean?

Aramendi: Haurren garapenerako ezin besteko tresnak dira ipuinak, eta gainera ipuina irakurtzen ari zaionarekin sortzen den momentu hori behar-beharrezkoa da; liburutegiak ematen dizkizu momentu horiek, baina aukera oztopatzen ari zaizkigu eta umeengan liburutegiekiko harreman negatiboa bultzatzen da. Haurren artean irakurzaletasuna sustatzeko ez da oso estrategia ona.

Eguskizaga: Azken finean, haurrek liburutegia tentsio gune batekin lotzea dakar egoerak.

Arestian aipatu dudan oharrean, udal gobernuak argudiatzen du ez dagoela espaziorik.

Aramendi: Azterketa bat egitea eskatu zuen oposizioak, eta udal gobernuak bideratuta analisisia egin zuen liburuazainak, bost hilabetez, otsailetik ekainera, ea zenbat jendek erabiltzen duen liburutegia. Analisisia kanpoko norbaitek egin behar zuela eskatu genuen, ez aldaletarik nahi ez duen liburuazainak, baina ez ziguten kasurik egin. Liburua entregatzera baino joaten ez zena eta liburutegian egotera joaten zena, denak zaku berean sartu zituzten, horrekin ere ez ginen ados.

Baina hala eta guztiz ere, argi geratu da espazio faltarik ez dagoela: helduen liburutegian batez beste bost erabiltzaile daude orduko (44 eserleku egonik), eta umeen liburutegian egun osoan batez beste zortzi erabiltzaile (23 eserleku egonik). Argudioak ez du oinarririk. Eta

Esaten dute hogeitaz urte daramatzatela horrela funtzionatzen, baina praktikan aplikatzen dituzten ordu debekuak ez daude araudian jasota



horri gehitu behar zaio hirugarren gela dagoela, ikasteko gela, aparte eta itxita, beste hemezortzi eserlekurekin. Espazio faltarengatik hartzen omen diren neurriek zergatik eragiten diete soilik umei? Edota espazioa bada kezka, 2-6 urteko guztiak ordubetea, ordu berean, pilatzeak badu zentzurik?

Eguskizaga: Ordubete horretan ere ez da pilaketarik egoten, espazioa ez delako traba, eta eragiten diguten deserosotasun handi horrek ekarri duelako jende askok ez erabiltzea potentzialitate handia duen espazio bat. Gainera, espazio faltaren argudioak ez die beste debeku batzuei erantzuten: zergatik ezin dute 2 urtez azpiko umeek egon haur liburutegian? Zergatik ezin dute liburutegiko erabiltzaile txartela atera? 0-2 urtekoentzako liburuak badituztela esan digute, alegia haur horientzako ipuinak mailegatu eta etxera eraman ditzakete, baina ezin dute liburutegian egon. Plazan, supermerkatuan, tabernan... egon daitezke, baina liburutegian ez.

Aramendi: Edo adibidez, umeen liburutegiko materialik ezin da beste liburutegi batetik mailegatu, eta helduen liburutegian aldiz bai; erabaki horrek zer ikusi du espazioarekin?

Debeku guztiak adin txikikoentzat dira?

Eguskizaga: Helduentzako dauden arauak logikoak dira: ezin da jan, ezin da erre, hartzen dituzun liburuak berdin bueltatu, mugikorrak isildu... Nahiko genituzke halako arauak gure haurrentzat ere!

Aramendi: Margotu ere ezin dute egin liburutegian, liburuak hondatu ditzaketela argudiatuta. Edo oraintsu ume bati panpinarekin ezin zuela sartu esan dio liburuazainak, baina ni erosketa poltsarekin eta edozerekin sartu izan naiz eta inork ez dit ezer esan.

Eguskizaga: Umeak ez dira ongi etorriak liburutegian.

Udal gobernuarekin hirutan bildu zarete eta udal batzordean ere eztabaidatu da gaia. Ez al da hurbilketarik egon?

Eguskizaga: Egin dugun ibilbidea ikusita, sentsazioa dugu hasiera-hasieratik ez zutela asmorik ezer aldatzeko. Gure proposamen txikienari ere ezezkoa eman diote: haur liburutegiaren atea ixtea (zarata baldin bada arazoa); espazioa berrantolatzea (hemeroteka, DVDak-eta dauden lekua...), proba pilotu bat egitea bizikidetzari eragiten al dion ikusteko...

EAJ dago agintean, sei zinegotzirekin. EH Bilduk beste sei ditu eta Orain Deba herri-plataformak bat. Zer dio oposizioak?

Aramendi: Oposizioarekin bildu gara eta babesa adierazi digute, baina ez dugu afera politizatu nahi.

Eguskizaga: Oraintxe bertan, ikusita zein blokeo egoeran gauden, berriz ere joko dugu alderdi politiko guztiengana, denekin hitz egin eta gaia bideratu asmoz. Orain Deba plataforma, adibidez, ez da orain arteko bileretara agertu ere egin. Egungo alkatea aurretik liburuazaina izan da urtetan, eta pentsatzen dugu horrek pisu handia duela honetan guztian.

Debako liburutegia Euskadiko Liburutegi Sarean dagoen heinean, Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzura ere jo duzue, esku har dezan.

Aramendi: Ez dugu erantzun ofizialik jaso, baina zerbitzuburuak emailaz esan zigun ez dutela esku hartuko. Argudiatu zuen eskumenak udalarenak direla. Espainiako Konstituzioaren artikulua aipatu zizkigun, Konstituzioak herrien autonomia bermatzen duela dioena eta kultura jarduerak kudeatzea eta antolatzea udalaren eskumena dela dioena. Liburutegien Legea ere aipatu zigun, orokorra dela eta zehazki gai horren inguruan ez duela ezer esaten, hutsunea dagoela hor.



Ezkerrean, Liburutegia Denontzat taldeko argazkia. Eskuinean, haiek antolatutako kale liburutegietako bat.

Ez al luke esku hartzeko betebeharra, umeenganako diskriminazioa baldin badago?

Aramendi: Egia esan, asko harritu gaitu erantzunak, Debako liburutegia Liburutegi Sarearen barruan dagoelako eta Liburutegi Zerbitzuari dagokiolako sarearen barruan dauden liburutegien kudeaketa. Ardura horretatik ihes egi-tea larria iruditzen zaigu, eta gainera esku-hartzea modu askotara egin daiteke, praktika onen dekalogo batetik hasi eta Sarean dauden liburutegientzako funtzionamenduaren inguruko gomendio liburuxka bateraino, gutxieneko batzuk eskatuta. Pentsa, beste herri bateko umea, 0-2 urte artekoa, etorri daiteke liburutegira eta liburu bat mailegatu, baduelako txartela bere liburutegian aterata, baina Debako umeak ezin du. Denak sare berekoak izanik, hori guztia koordinatzeko eta zentzuz jokatzeko esku hartu beharko luke Jaurilaritzako Liburutegi Zerbitzuak. Udal gobernuaren eta gure artean bitartekari lana egi-teko ere eskatu diogu.

Eguskizaga: Gure sentsazioa da ez dutela sartu nahi izan, baina nahi izanez gero badituztela erramintak, baita legalak ere, gaiari heltzeko. Hain justu, zerbitziburak aipatu digun Liburutegien Legeak ere agintzen die liburutegien titularrei “berma diezaietela erabiltzaileei, liburutegietara berdintasunean eta inolako tratu diskriminatzaile gabe irispidea izateko eskubidea”. Eta 14. artikuluan honakoa zehazten du: “Irakurketa publikoko sareko liburutegiak (...) herritar guztientzako irekita

Umeengan liburutegiekiko harreman negatiboa bultzatzen da. Haurren artean irakurzaletasuna sustatzeko ez da oso estrategia ona

Argi geratu da espazio faltarik ez dagoela. Eta hala balitz, espazio faltarengatik hartzen omen diren neurriek zergatik eragiten diete soilik umei?

egongo dira, horien adina, arraza, sexua, erlijioa, nazionalitatea edo gizarte maila dena dela”. Adina propio aipatzen du.

Arartekora ere jo duzue.

Aramendi: Bai, iazko maiatzean jo genuen, ikusita eskubide kontua dela. Baina hara non, erantzuna izan da ez duela

esku hartuko, eta argudioen artean darabil Domingok [Miguel Ángel Domingo da Euskadiko Liburutegi Zerbitzuko burua] aipaturiko legea, udalerrien eskumenen ingurukoa. Gaineratzen du ez duela ikusten zuzenbidearen aurkakoa denik edo irregulartasun legalik duenik, eta “kudeaketa eredu bat edo beste aukeratzekoan, [Arartekoari] ez dagokio iritzia ematea”. Gure ustez oso larria da kudeaketa eredu posible gisa planteatzea umeen aurkako diskriminazio garbia dena. Arartekoari erantzun egin genion, hala nola Liburutegien Legea eta Haur eta Nerabeen Babeserako Legea aipatuta, baina ez genuen bueltan ezer jaso. Berriz ere Arartekora joko dugu, halere, herritarren testigantzak gehituta.

Eguskizaga: Arartekoaren erantzuna kolpe bat izan da guretzat, babesgabe sentitu gara.

Herrikideen partetik babesik sumatzen al duzue?

Aramendi: Herrian 500 sinadura bildu genituen, liburutegiko neurri horiek aldatzeko eskatzen, eta gauza handia izan zen. Debako eragile askoren babesak ere izan dugu (guraso elkarteak, aisialdiari lotutako eragileak...) eta pozik gaude, alde horretatik. Kale liburutegiak ere antolatu ditugu, denentzako espazio irekiak, eta horietara hainbeste jende etorri izana guretzat bada Deban dagoen behar baten seinale. Herritarren eskaera bat dago eta udal gobernuak arduraz erantzun beharko luke, txandapasa egin ordez.

Zer nolako lekua eta rola dute hurrek beste herrietako liburutegietan?

Eguskizaga: Deban oinarri-oinarrizkoa eskatzen ari garen honetan, ikusten ari gara beste liburutegietan makina bat ekimen egiten dituztela jendea liburutegira erakartzeko: antzerki tailerrak, ilustrazio tailerrak, *scape room*-ak, ipuin-kontaktak, komunitate ezberdinetako hizkuntzak partekatze espazioak...

Aramendi: Esanguratsua da: Debako liburutegiaren atarian, helduen atalean “Irakurketa suspertzeko ekintzak” arloa dago, eta umeen atalean berriz, ez dago halakorik, ez dagoelako programarik hurrei zuzenduta. Yolanda Arrieta idazleak egiten duen tailer bat baino ez dago; hots, Lehen Hezkuntzako seigarren mailara iritsi arte, ez dago ezer umei zuzenduta.

Dena den, Liburuaren Egunaren harira, aspaldiko partez ipuin kontaketa egingo da liburutegian. Debako ipuin kontalariek egindako eskaera onartu du udal gobernua, eta egoera aintzat hartuta, guretzat bada urrats txiki bat, pozgarria.

Eta beste herrietako liburuzainei, gurasoei... Deban gertatzen dena kontatzen diezuenean, zer esaten dizute?

Eguskizaga: Egoerak eragiten duen harridura izugarria da, askori sinesgaitza zaio, eta gainera sentsazioa da ebazten erraza den gaia dela: liburutegi barruan espazio bat dago berezitua haurrentzat, liburuzain propioa du... Orduan, zein da arazoa?

Aramendi: Guri gertatu zaigu. Aspal-ditik datorren praktika da, baina agian ez dira aurrez elkartu neurriak aldatzea eskatzeko; guk taldetxoak sortu eta pentsatu genuen, “segituan soluzionatuko da”, eta berdin-berdin jarraitzen dugu...

Eguskizaga: Kontua da, herritik kanpo jendeak esaten digula gure borroka harrigarria zaiola, hain da eskaera oinarritzkoa, baina herrian jende bat dago egoera honetara ohitu dena, udal gobernuaren argudioak normalak iruditzeraino; ohitu egin dira espazio hori horrela erabiltzera eta helduen artekoa baino ez den bizikidetzara.

Hain justu, “normaltasun” horretatik atera eta “liburutegia zer izan da, zer da eta zer izan daiteke” gogoeta prozesuari ekin diozue, mahai-



DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA



DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

“Liburutegia zer izan da, zer da eta zer izan daiteke” mahai-inguruarekin abiatu dute gogoeta prozesua.

Deban oinarri-oinarrizkoa eskatzen ari garen honetan, ikusten ari gara beste liburutegietan makina bat ekimen egiten dituztela jendea liburutegira erakartzeko



inguru batekin hasita, denen artean bestelako liburutegi bat eraiki nahian.

Aramendi: Liburuzainak eta udal gobernu kideak izan dira mahai-ingurura gonbidatu ditugun lehenengoak, hausnarketa bultzatzea helburu duen ekimen honetan egon behar dutela pentsatzen dugulako [elkarriketa hau egin ondoren izan da mahai-ingurua eta bai udal gobernuko ordezkariak bai liburuzainak bertaratu dira]. Adituak diren liburuzainak etorriko dira herrira, haien esperientzia kontatzera, eta gogoetarako baliagarria izatea espero dugu.

Eguskizaga: Hitz egiten jarraitzeko bide eman dezala nahi dugu, mahai gainean konponbideak jartzeko eta hogeit urtean erabili den eta denentzat baliagarria ez den formula gainditzeko. ●



Hitz gezidunak

BIZKAIKO UDALERRIA
BIZKARRE-ZURRAREN HEZUR

TUA BOTATZEN
PARE BAT

TRABATU, ATXIKIRIK GERATU
MUIN, FUNTS

KORDEA

MUSUA, UMEEN HIZKERAN GEL

SUTSU
BARAU EGINEZ IGA-ROTZEN DEN DENBORA

EREDU
ERREPIKA-TUZ, TXORI MOTA

EINSTEINIOA
PERTSO-NAIAREN ABIZENA

Osoa
ZAKURRA

JANTZI LUZE ETA ZABALA
SOZIALISTA ABERTZA-LEAK

BASAMORTU-KO ZELAI

SALDU ADITZAREN INFINITIBOA
PRESTATU

ALEMANIAKO HERRITAR
AZALDU

ONTZIDIA
ARNAS-BOTATZE ZARATATSU

MUSIKA
500, ERROMATAR ZENBAKIZ

PILOTA
EGOKI, BEHAR BEZALA

PERTSO-NAIAREN IZENA
UGAZTUN MOTA

NORAINO ATZIZKIA
... GAZTAINA, ITSAS GAZTAINA

... URKJO, ZINE ZUZENDARI

ADIZKI
LITURGI OTOITZA

MAGO
HARRIDURA ADIERAZTEKO HITZA

EKAI
LAOSKO MONETA

LUKIA
ETZANARAZIA

AZKENA ETA LEHENA
NIREGANA

HIDROGENOA
U BIRRITAN

DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

ZAPI, EHUN

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	5	2	6		1		7	
	3		9	5		2	6	
	1		3			9	5	8
		3			6			
		7		9		3	2	6
		9			8	7		5
	6		8			5		
	7	5				1		
	9	1		7	5		3	2

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Kolpe baten onomatopeia.
2. Atarte, atalase.
3. Edo.
4. Zamarien ahoko edo muturrekoa.
5. Aizu!

EBAZPENAK

AIZAK
BRIDA
NAHIZ
ATARI
DANBA
SXS:

2	3	6	5	7	4	1	8	9
4	8	1	5	2	7	3	6	9
7	6	5	3	8	4	9	2	1
5	2	1	3	8	6	7	9	4
9	7	5	9	4	3	1	8	7
6	1	1	9	6	8	7	5	4
8	5	5	4	2	6	3	7	1
1	6	2	7	5	6	9	1	4
3	4	7	8	1	4	7	3	6

L	U	V	p		I	D	T	V	U	V	R	V	B
V	U	N	I	O	D	U	S	J	R	V	K		
H	V	K	I	N	U	L		I	O	B	V	X	
I	V	G	V	I	L	Z	U	G	V	p			
O	N	I	V	R	V	E	L	R	O	N	O	K	
V	A	I	R	V	M		I	V	p	E			
V	Z	N	V	M	E	T	V		I	M	V	M	
I	L	Z	V	U	L	V	G	I	L	V	K		
R	V	T	V	p		S		S	E		I	B	
E	R	I	L	E				V	K	U	T		
Z	E	D	L	O	M			O	R	K	V	S	
V	V	A	B					V		G			



Konfort gunea

UXUE GUTIERREZ LORENZO IKER GARCIA

Martxoak beti du deustuarrontzat kolore berezia; urtero ospatzen ditugu jaiak, San Jose egunaren bueltan. Bi asteburu bete festa, eta urtetik urtera Deustuko Aste Nagusia sortzen ere hasi gara. Berritasunak txertatzen doazen arren, jaiek badute ekintza izarra, kanpotarrak erakarri eta bertakoak jakinminenez afixaren zain mantentzen di-tuena. Bai, asmatu duzue: kontzertuak!

Eta, kontzertuen programazioan zer, noiz, nola antolatu beti da ariketa zail xamarra: estiloa, aurrekontua, ordutegia, baliabideak, eguraldia, disponibilitatea... Askok dira kontuan hartu beharreko irizpideak. Gaur, jaietako lehen larunbatean, esango dut hasiera batean harritu egin nauela Olatz Salvador egitarauan ikusteak. Disko berriaren biran murgilduta dabil donostiarra, eta argi adierazi eta aurreratu zuen kontzertu gutxi eskainiko zituela, denak bera-
rentzat "eroso" ziren oholtza goxoetan. Horregatik, batik bat aretoetan ari da musikaria: Bilboko Kafe Antzokia, Do-

nostiako Victoria Eugenia, Eibarko Coliseo Antzokia...

Deustun, bestelakoa da egoera. Larunbata, jaien bigarren eguna, gaueko 22:00ak eta gradu bat termometroetan. Erreka alboan gogor jotzen du haizeak txosnagunean, eta deustuarrak lehen parranda eguneko ajeari buelta eman ezinik dabilta oraindik. Olatzek berak kontzertua abiatu eta berehala aitortu du bere konfort gunetik aterata onartu zuela eskaintza, baita ilusio handiz hartu ere. Orduan egin da magia.

Harilkatu ditu *Zainak eman* disko berrian aurkeztu dituen kantuak, eta aurreko diskoetako abestiak. *Zarataz Harago* kantuak ireki du zuzeneko, eta jarraitu diote *Azken eguzki printzak*, *Haragi Bizitan*, *Aho Uhal*, *Gerorik Balego* edo *Zerbaiten Zain*-ek. *Zintzilik*, *Korapilatzen*, *Lokarriak*... doinu zaharragoak goxo hartu ditu publikoak. Eta, nabarmentzeko, bi momentu berezi. Lore sorta eskutan eta publiko artera jaitzita abestu du *Lore bat emango dizut* kantu

OLATZ SALVADOR

NOIZ: martxoaren 15ean.

NON: Deustuko jaietan.

berezia Salvadorrek. Eta, ixteko, *Basan*.

Haizearekin, ahotsarekin eta hotzarekin borrokan ibili da musikaria, eta zalantzarik gabe kontzertu deserosoa izateko elementu asko zituen zuzenekoak. Halere, maitasunez agurtu du publikoa. Nik txamarra goraino lotuta eta eskuak poltsikoetan sartuta ikusi dut kontzertua, hipnotizatuta. Beste lagun bat izan dut alboan zuzenekoak iraun artean, baina oso hitz gutxi gurutzatu ditugu. Ez dugu beharrik izan, bakoitzak bere esperientzia propioa bizi du zuzeneko magikoan erabat murgilduta.

Basan-en azken hitzekin puskatu da burbuila, bukatu da Olatzek proposatu digun bidaia eta itzuli gara jaien tes-tuingurura. Txosnako barran zarata eta edari artean murgildu aurretik lagunari esan diot: "Ondo, ezta?". Berak erantzun: "Edozer dela ere, ondo egiten denean, ze gustora, ezta?". Hori da konfort gunea, mimoz sortu eta jasotzen dena; sortzai-lea eta entzulea gustora ari diren unea, tokia edo egoera. ●



LIBURUA

Matxinadara!



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

ODOLAREN MATXINADAK. GORPUTZA, POLITIKA ETA AFEKTUAK

MIREN GUILLÓ

EHU, 2024

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Miren Guilló antropologoaren saia-kera berria argitaratu du EHUK. *Odolaren matxinada* da izenburu nagusia eta gaiaren nondik norakoa antzematen uzten digu: matxinatu beharra duen odola, hilekoa da. Eta azpigituluak, *Gorputza, politika eta afektuak*, gaia nondik behatu eta aztertu duen zehazten du. Gaiari dimentsio pertsonala eman dio, politikoa eta erlazonala. Proposamen borobila da, beraz.

Hilekoa modu sakon, oso eta zehatzetan jasotzen duen lehenengo liburua da euskaraz. Gaiaren konplexutasunari ez dio muzin egiten, eta ertz desberdinetatik begiratzen dio modu kritikoan. Oso interesgarria den zerbait egiten du, gainera. Ez du hilekoa modu isolatuan aztertzen, baizik eta inguruarekin eta osotasun batekin duen loturan aztertzen du.

Hori guztia liburuak dituen zazpi kapituletan zehar kontaktzen da: genealogia feministak, osasunaren ulerkerak eta medikuntza, odolaren kudeaketa, nazkari buruzko apunteak, gorputzari eta hilekoari buruzko jakintza kolektiboa, ziklikotasuna eta abar.

Azkenengo atalean, epilogoan, liburuak sortutako galdera eta ondorioak jasotzen dira, laburpen bikaina eginez eta aldi berean erresistentziarako proposamenak jasoz.

Saiakeraren tonua akademikoa da, ikerketetan erabiltzen dena baina ez hotza. Aipamen asko jaso ditu autoreak eta erreferentzia bibliografikoz josita dago lan osoa. Ohikoa da hori, bereziki unibertsitateko ikergaietan. Izan ere, heteropatriarkatua jakean jarriko dituzten ikerketa lerroak bereziki

ongi justifikatuta egon behar baitira. Hala ere, eta Guillók erabili duen metodologietako bati esker (gorputz ibilbideak eta etnografia), elkarrizketatu desberdinek esandakoak transkribatuta agertzen dira, ahozkotetasunak duen gertutasuna eta naturaltasuna emanez ikerketari, eta bi tonuen arteko oreka sortuz.

Agian ez da dena batera eta jarraian irakurtzeko liburua, pausatu eta hausnartzeko gonbidapena luzatzen baitigu etengabe. Norberaren gorputzera behatzeko eta politikoki gure kokapena birpentsatzeko. Gaian interesa duen edonork gozatuko du liburua. Eta irakurtzen duen edonork ikasi egingo du, asko. Arkatzarekin irakurtzeko liburua da, ideiak azpimarratu eta irakurgaiak apuntatzeko. Matxinadara! ●



MUSIKA

Pierre Boulez: matematikaren eta abangoardiaren artean

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Joan den martxoaren 7an Maurice Ravel, garai guztietako euskal konpositorerik onena, jaio zela 150 urte bete ziren. Eta ARGIA omenaldia egin zitzaion konpositore horri, *Bolero* ospetsuak imajinario kolektiboan izan duen eragina gogoratuz.

Kasualitatez, Deutsche Grammophonek disko bat argitaratu berri du Ravelen lan enblematikoekin, horien artean *Bolero*-a, Berlingo Filarmonikaren eskutik, eta Pierre Boulez handiaren zuzendaritzapean, zeinaren jaiotzaren mendeurrena martxoaren 25ean bete den. 1993an Berlingo Jesus Christus Kirche-n egindako grabazioa erreferentzia da. Disko horren bidez, beraz, konpositorea eta zuzendaria omentzen dira.

Lerro hauen bitartez, Boulez, Bigarren Mundu Gerraren ondoren musikaren abangoardian hainbeste eragin izan zuen fenomeno musikala omendu nahi dut.

Musikagile frantsesa musikaren munduan ez ezik, bere garaiko intelektualtasunean ere erreferentzetzat har daiteke. Matematikari gisa prestakuntza akademiko batetik abiatuta, musika garaikidearen unibertsoak liluratu zuen Boulez, Olivier Messiaen edo René Leibowitz bezalako irakasleen bitartez.

Hain zuzen ere, bere jakintza matematikoak serialismo integrala deritzona besarkarazi zion. Hau Schönbergen dodekafonismotik bereizten da, seriearen kontzeptua noten altuerari aplikatzeaz



HARRY POT / ANEFO

gain, soinuaren beste aldagai batzuei ere aplikatzen dielako: erritmoak, dinamika, atakeak eta abar.

Horrez gain, musika kultu elektronikoaren eta ordenagailu bidezko musikaren aitzindaria izan zen.

Bestalde, IRCAM (Institut de Recherche et Coordination Acoustique/Musique) erakundeko zuzendaria izan zen 1970etik 1992ra. Musika garaikidearen ikerketaz eta garapenaz arduratzan den institutu horrek eragin handia du Europan, eta Boulezek izaera nabarmena eman zion erakunde honi.

1960tik aurrera, bere konposatzeko modua malgutu egin zen, eta aleatoriotasun kontrolatu batera eta tinbre-sentsibilitate zorrotz batera iritsi zen, Debussyren eraginekin. *Polyphonie X* (1951), *Le marteau sans maître* (1955), *Pli selon Pli* (1962) eta *Notations* (1980) dira bere lanik garrantzitsuenetako batzuk.

Urteurren biak kontuan hartuta, lehen aipatutako Deutscheren grabaketaz gozatzeraz gonbidatzen zaituztet: Ravel handia, Ziburuko jeinuaren musika hobekien ulertu zuen zuzendari baten gidaritzapean, Pierre Boulez. ●

Seiko motz berria, EAJren erreleboari jarria

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Animoso sartu zen Zarauzko gazte kuadrilla hura Donostiako EGIren egoitzara. Eta lehenagotik han zeuden parrokianoek ondo hartu zituztela dirudi. Klaro, tartean zegoen ordurako *celebrity* bihurtzeko bidean zen bertsolari hura ere; lagunduko zuen, diot nik. Baina azkar hasi zen giroa okertzen, gure enda garbiko gazte horietako bat, lainezaren lainezaz ezin kabiturik, gehitxo nabarmentzen hasi zenean –euskaldunen artean bekatu mortala da hori–. Azkenetako altxa da bertsolaria, Iñaki Eizmendi *Basarri*, adiskidea bere lekuan jartzera: “Aizazu gazte, lagun nerea, / zertan zabiltza orrela? / Ez al dakizu ainbat jaun prestu / ortik begira daudela, / era ortako jolasketarik / gutxi maitatzen dutela? / Egizu kontu zuk Donostiko / Euzko Gaztedin zaudela; / umekeriak baztatu itzazu / ta ibili gizon bezela!”.

“Bertsoaren indarra!”, kontatzen du eszenaren lekuko izan zen Joseba Zubimendik: “Gazte bihurria ez zen gehiago

sentitu; lainezak ihestu zitzaizkion; harrotasunak, urtu. Itsas barearen antzeko leun geratu zitzaigun. Bertso batek honelako indarra izanik, zenbat eta zenbat egin lezakete bertsolariek, bide zuzenean jarrita, gure egiaren zabalkunderako!”. Ez da txori-kaka 1934ko abenduko pasadizo hura, une horretan piztu baitzitzaion zenbaiti kriseilua: erreminta aparta zen bertsoa euskaldunak abertzaletasunaren inguruan artikulatzeko. Ideiak gaur eguneraino iraun du. Beste upel bateko sagardoa da “gure egia” delako hori zeren bueltan mamitu den bertsotan; baina hortik segi gabe –jada sumatzen baitut baten bat Sarrasketarekin apuntatzen–, esan dezadan Andoni Ortuzarreatatik ekarri dudala kontua lerro hauetara.

Bertsotan utzi baitu Ortuzarrek EAJren EBBko buruzagitza. Ez Star Trek, ez Bruce Springsteen, ez *I am Basque*: bertsotan, Oskorriren *Aita-semeak* doinuarekin eta bukaeran “inork ez beza inoiz ahaztu / batasuna da indarra” batekin, zeinari, dena esateko, falta izan

baitzaion asuntuaren profesionalek, aberriaren pisu osoa errimatan jartzen ari direla jakitun, eransten dioten mistizismoa; eta zeinak, bestalde, aldarrikatu behar hutsagatik, adierazten baitu Alfa eta Omegaren alderdia ez dagoela oraindik guztiz ados bere buruarekin.

Normala ere bada: ikusten dute lehenago bertsolaritzan bezala, orain hautelaritzan ari zaizkiela beste horiek gailentzen. Eta nerbioak. Pertsonalki, dena den, iruditzen zait gehiegi hitz egiten dela EAJk ezkerreko erretrobisoretik geroz eta gertuago ikusten duen EH Bilduren hibrido entxufagarriaz. Eta oso gutxi, edo batere ez, pixka bat despistatuz gero eskuineko erretrobisoretik ager dakioken Teslaren Cybertruckaz.

Ea ondo xamar esplikatzeari lortzen dudana: jeltzaleak pintza baten erdian irudikatzen ditut une honetan, alde batean dutela *suaviter in modo* eginez emaitza onak lortzen ari den ezker subiranista; eta, bestean, oraindik ezer oso konkretuan kristalizatu ez den arren, kalean belarria pixka bat jartzen duenak erraz antzematen duen eusko labeldun trumpismo baten posibilitatea –alegia: arrazakeria, lgtbifobia eta sektore publikoaren desegitea *à gogo*, den-denarekin erreta dagoen jendea herra horretarako antolatuz–.

Eransten badiozu oinarri sozial edadetu eta nahiko desmobilizatu, argi dago, nik uste, ez dela Andoni batean Aitor jarrita bakarrik bideratu daitekeen zerbait. Obra handiak eskatzen dizkio momentuak EAJri, azpiegitura kolosalean enplegatzeak ziren porlan-zaku batzuk beharko dira urtetan boterea bermatu dion bloke historikoa birkonfiguratzeko. Sortzen zaidan galdera da: ba ote dago gai hori entzunda bertso onen bat botako duen inor oraingo EGIren egoitzetan? ●



PROIEKTUAREN ERAGILEAK

æk
korrika



MIROKUTANA

JALGI HADI!

DOKUMENTALERAKO
CROWDFUNDING KANPAINA

**EUSKARA BIDEGURUTZEAN DA
ETA EUSKALTZALEOK BERPIZKUNDEA ABIATUKO DUGU,
GURE HIZKUNTZAK ETORKIZUNA IZAN DEZAN.**

Korrikak lotzen dituen zazpi lurraldeetan zehar, gure hizkuntzaren
iraganari, orainari eta etorkizunari buruz hausnartuko dugu.

CROWDFUNDING



GOTEO.ORG

JALGIHADI.EUS

Bizi Baratzea

Orria

Lurrari begiratzeko diogunon

Badator urtaro bakoitzean
zabalduko den aldizkari berria.

Lur gaiak jorratzen jarraituko
dugu *zuri esker*
eginbizibaratzea.eus

Formatu
berezia

Lehen alean
posterra
polinizazioaz

Martxoaren
30ean lehen alea
ARGIArekin edo
Bizi Baratzekoa
eginda